

LITERATUR LEHIAKETA 2016

ORIO

ESKOLAUMEEN

LITERATUR LEHIAKETA 2016

ORIO



Azala: Eider Pérez
Legezko gordailua: SS 477/88
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

Aurkibidea

<i>Hitzaurrea. Aitziber Campos</i>	5
<i>Hondartza. Ane Alberdi</i>	7
<i>Nire lagun ona. Ibai Sarasola</i>	7
<i>Non dago Xabat? Alex Carrera</i>	9
<i>Jakesen egunerokoa. Jon Larrañaga</i>	9
<i>Horia, Orioren bizia. Marene Agirre</i>	15
<i>Lagunei. Haizea Gozategi</i>	15
<i>Juan saguaren abenturak. Mikel Genova</i>	17
<i>Uharte galdua. Iker Sarasua</i>	21
<i>Zergatik? Maialen Orbañanos</i>	23
<i>Izeba Maria. Udane Ostolaza</i>	25
<i>Agur, Kamila! Haizea Arrizabalaga</i>	27
<i>Inurriaren abentura. Beñat Uranga</i>	35
<i>Oporretara noa. Nagore Iturralde</i>	37
<i>Sentimenduz betea. Candy Ostolaza</i>	39
<i>Orioko herrixkaren sekretua. Leire Olariaga</i>	39
<i>Abentura kosmikoa. Lukas Martin</i>	45
<i>Esaten zuten. Ane Rodriguez</i>	51
<i>Zu. Mikel Zurutuza</i>	51
<i>Martina. Naroa Larreta</i>	53
<i>Denak berdinak. Naia Makazaga</i>	55
<i>Aitatxo. Ekhi Gozategi</i>	61
<i>Animaliak naturan. Iker Rodriguez</i>	61
<i>Amets lortua. Irati Antia</i>	63
<i>Birraitonaren gaztetako abentura. Laida Urbitarte</i>	65
<i>Ez egin negarrik. Ixiar Mendizabal</i>	69
<i>Erantzunik gabeko mila galdera. Eider Peiro</i>	71
<i>Ipuin bat 30 minututan idaztenibre. Amaia Izagirre</i>	71
<i>Munduaren bi aldeak. Nora Lizarralde</i>	75
<i>Ongi etorri, seme? Ainhoa Bontigui</i>	79
<i>Kontatutako egunak. Olatz Genova</i>	83

Hitzaurrea

Literatur lehiaketa entzun eta pentsamenduak urte dezente atzera egin dit; bai, igande arratsaldeko eguzkia sartzearekin batera, etxerako lanak bukatzeko idazlana egitea falta zitzaidanera egin dut jauzi: *Zer idatzi? Nola hasi? Zein izango da korapiloa? Zein pertsonaiak? Idazteari ekingo diot eta...*

Logelako mahaian eseri eta leihotik kanpora begira egoten nintzen idazlana nondik nora egin nezakeen pentsatzen. Batzuetan, inspirazioa segituan etortzen zitzaidan; beste batzuetan, aldiz, ederki kostata. Azken finean, idaztea niretzat beti izan da idazleak duen barne ikuspegi, sentimendu, kezka... baten eta errealitatean gertatzen edo bizi denaren arteko lotura egoki bat egitea. Beste modu batean esanda, gaur egungoa den gaia hautatzea komeni da, idazleak bere ukitu propioa eman behar dio idatzitakoari, baina irakurle mota guztiekin argi ibili behar du (ez ditzan batzuk iraindu eta beste batzuk goraiatu). Besteek idatzitakoa irakurtzeak baino zailtasun gehiago ditu norberak sortutako testu propioa idazteak.

Horregatik, letrak elkarren artean jostea ez da izan inoiz nire afizioa; bai, ordea, hizkiak beren artean elkartzen direnean sortzen duten testua irakurtzea. Liburu ugari irakurri izan ditut; oraindik ere, denbora tarte txikiren bat dudanean, liburuen esan ezberdinak irakurriz gustura egoten naiz egongelako eserlekuan, eta garaian garaiko ohituretara moldatuz, liburu elektronikoko bat ere badut.

Hala ere, bada gure herrian (eta beste askotan ere horrelaxe gertatzen delakoan nago) edozein liburu elektronikok sortzen ez didan tripetako zirrara mugimendu berezi hori: literatur lehiaketako liburutxoak. Irrikaz beterik egoten naiz liburutxo hau noiz argitaratuko zain; azken finean, antzinako une gozo ugari ekartzen baitizkit burura eta, gainera, nire inguruan bizi direnen pasarteak irakurtzeko aukera eskaintzen dit.

Hori bai, irakurtzeko zaletasunik ez nuke izango idazlerik existituko ez balitz. Ikusitako emaitzekin, lehiaketan parte hartu duzuen guztiok, ez-sarituak barne, baduzue letrak eta hitzak elkarren artean josteko abilezia berezia; beraz, jarraitu idazten gainontzekoek irakurriz disfrutatzea posible izan dezagun.

Eskerrik asko eta zorionak guztioi!

Aitziber Campos

Hondartza

Autoa hartuta denok
goaz tirri-tarra,
hondartzara joatea
ez da ba plan txarra:
kuboa, pala eta
zalabardo zaharra,
bertara iritsi eta
itsaso zakarra. (bis)


Uretan sartu eta
kriston olatua,
buelbaka ibili nau,
hau da, hau, sustua!
Kanpora noa berriz,
erdi zoratua,
eta espabilatzeko
jan det helatua. (bis)

Ane Alberdi

Nire lagun ona

Bada maite dudan lagun bat;
bere izena, Xabat.
Futbolean jolastu nahi dudanean,
Bai, bai! esaten didana:
Bien artean sartuko dugu gola.
Edozein gauzatara jolasteko prest dagoena,
eta, jolastetik aparte, nirekin denetik egiten duena:
ikastolan, katekesian, entrenamenduan...
Beti nirekin dagoena eta beti egongo dena.

Ibai Sarasola



Brittney Coon

Non dago Xabat?

Bazen behin Bilboko hirian bizi zen familia bat. Familia hartan hiru anai-arreba ziren. Junek 10 urte zeuzkan; Mariak, 8; eta Xabatek, 4 urte. Juneri asko gustatzen zitzaion ikertzailetan jolastea eta Mariari ere bai. Xabati ezkutatzea gustatzen zitzaion.

Egun batean, hirurak ikertzaile jolasean zebiltzala, Xabatek etxeko atea zabalik ikusi eta beste ezkutaleku bat aurkitzea pentsatu zuen, baina galdu egin zen. June eta Mariak beti erraz aurkitzen zuten Xabat, toki guztietan apurrak uzten zituelako; baina egun hartan apurrak etxeko atarian bakarrik zeuden eta kalean berarekin beti eramaten zuen pelutxea ikusi zuten. Asko beldurtu ziren eta kale guztietan kartelak jarri zituzten, anaia aurkitzeko.

Hurrengo egunean gizon bat etorri zen etxera, esanez antzeko ume bat ikusi zuela bere auzoko parkean. Ahal izan zuten azkarrena joan ziren. Parkea goitik behera begiratu zuten eta bat-batean apur batzuk ikusi zituzten txirristaren azpiraino zihoazenak.... Han zegoen Xabat, lo!

Gero denak etxera joan ziren eta Xabatek kontatu zien galdu egin zela; baina lasai zegoela, bazekielako Junek eta Mariak aurkituko zutela, munduko ikertzaile onenak zirelako.

Alex Carrera

Jakesen egunerokoa

Ni Jakes naiz, 20 urteko mutil alai. Arabatik etorri naiz Gipuzkoako Donostia hirira gaur, 2015eko abuztuaren 23an, nire gurasoekin. Mutiko altua eta argala naiz, nire ilea marroia da eta begi urdinak dauzkat. Lagun guztiak Araban utzi ditut; baina, oso lagunkoia naizenez, espero dut lagun asko oso azkar egitea hemen Donostian. Ikaragarri gustatzen zait *skaten* ibiltzea eta gitarra ere jotzen dut.

Goizean goiz esnatu, gosaldu eta jantzi egin naiz. Ondoren, lagun berriak egitera atera naiz kalera. Skate parkera joan naiz nire patinete txuri-urdinarekin eta han, Urko, Aitana, Breitsney, Unax, Markel, Paula, Paul eta Ion izeneko lagunak egin ditut. Egia esan, oso kuadrilla jatorra da. Guztiek dakite patinetean ibiltzen eta oso ondo pasatu dut. Orain bazkaltzera noa, amak deitu dit-eta. Iluntzean jarraituko dut idazten.



Uxue Etxeberria

Gaua heldu da, eta hemen naiz ostera egunerokoan idazten. Arratsaldean oso ondo pasatu dut: skate parkean igaro dugu arratsalde osoa, kuadrillan onartu naute... Oso pozik sentitu naiz eta, ez hori bakarrik, Aitana gero eta neskato politagoa iruditzen zait; zerbait sentitzen hasi ote naizen pentsatzen ari naiz. Biharko eguna iristeko zain nago, berriz lagunekin elkartzeko.

2015eko abuztuaren 24a. Egun izugarria

Gaur, skate parkea alde batera utzita, hondartzara joan gara guztiok, eta han jende gehiago ezagutu dut. Hala ere, onena izan da Urkok esan didanean musika talde bat dutela eta gitarra jotzen duen baten baten bila dabilzala. *Nik badakit gitarra jotzen!* esan diot eta, segituan, biharko geratu gara entseatzeko.

Aitanak gaur asko begiratzen zidan, irribarre eginez. Oso neska polita eta atsegin-na da; nirekin oso ondo portatu da bi egun hauetan. Bihar entsegura etortzen bada, etxerakoan lagundu egingo diot. Atsegin dut berarekin egotea.

2015eko abuztuaren 25a. Musika taldearen barruan eta Aitanarekin

Bai, horixe! Musika taldearen barruan nago! Eta ezetz asmatu nork abesten duen? Aitanak! Musika taldearen izena Ametsak da. Urko bateria da, Aitana abeslaria, Paulak pianoa jotzen du, Paulek baxua eta nik gitarra elektronikoa. Hori bai taldea! Izugarria!

Entsegua amaitu ondoren, Aitanarengana gerturatu naiz eta esan diot etxera lagunduko diodala. Baiezkoa esan dit irribarre goxo bat eginez. Guztiak agurtu eta etxerantz gindoazela eskutik heldu nau. Begietara begira geratu gara. Ezin izan diot gogoari eutsi eta muxu eman diot. Onartu egin du eta, etxera zuzenean joan beharrean, bueltatxo bat eman dugu eskutik helduta.

Oso pozik nago; guztia amets bat izango balitz bezala, hodeien artean. Ohera noa amets egitera.

2015eko abuztuaren 28a. Dena pikutara

Egun hauetan Ametsak gure musika-taldeak kontzertu bat lortu du Donostiako plazan eta entseatzen hasi garelako egon naiz okupatua, gaur arte. Aitana eta nire artekoa ez zaio ondo iruditzen Urkori, bera Aitanaz maiteminduta dagoelako orain dela urte batzuetatik hona. Urko eta ni errietan hasi gara eta Paul, haren lagun handia denez, tartean sartu da. Entsegua pikutara joan da. Urkok esan dit Aitanarekin daukadan erlazioa uzteko edo joan egingo dela Ametsa taldetik. Paulek ere esan du, Urko joaten bada taldetik, berak ere alde egingo duela eta, horrela, Ametsa taldea desagertu egingo dela.

Ez dakit zer egin. Aitana ere han zegoen eta negarrez joan da etxera inori ezer esan gabe. Triste nago, buruan gauza asko ditud eta ezer onik ez. Zer egin? Taldea



Manex Guenetxea

utzi eta Aitanarekin jarraitu, edo Aitana utzi eta taldearekin segi? Zer egingo dut? Zer nahi dut? Ohera noa.

Lo hartu ezinik nengoen eta skate parkera joan naiz buelta bat ematera. Han non aurkitu dudan Aitana. Haren ondoan eseri naiz eta luze hitz egin dugu. Berak bazekien Urko maiteminduta zegoela; baina berak lagun moduan maite duela eta nirekin jarraitu nahi duela esan dit. Ideia bat bururatu zaio. Esan dit, taldea ez desagertzeko, Urkorekin aterako dela eta gureak isilean segituko duela; Paulari bakarrik esango diola, bere lagunik onena delako.

2015eko abuztuaren 29a. Kontzertua eta egia guztia

Goizean parkean gelditu gara, Aitana eta ni. Izozkia jaten ari ginela, Paul azaldu da. Eskutik helduta harrapatu gaitu eta Urkori deitu dio. Ziztu bizian azaldu da. Aitanak gauzak sentitzen dituen moduan esan dizkio; Urkok ulertu du, baina triste joan da.

Arratsaldean, kontzertua baino lehen, Urko eta Paul etorri zaizkit, barkamen eske, berekoiak izan direla esanez. Esan didate, bestalde, gaurkoak ikaragarritzko kontzertua izan behar duela. Hori esan eta hala izan: kontzertua bukatu ondoren, CD bat grabatzeko proposatu digute. Oso ona! Guztiok oso ondo pasa dugu.

Munduko mutilik zoriontsuena sentitzen naiz!

Jon Larrañaga



Alba Lazkanotegi

Horia, Orioren bizia

Gorria, bihotzaren irria;
zuria, usoaren habia;
morea, mahatsaren lorea;
horia, Orioren bizia.

Marene Agirre

Lagunei

Ze jatorrak zareten!
beti laguntzeko prest,
beti alaitzeko prest,
ondo pasatzeko prest.
Elkarrekin jolasean,
poza bihotzean!
Beti zaudete ondoan
beharra dudanean,
adiskidetasunaren magalean,
nire ametsen erdigunean.

Haizea Gozategi



Ane Amas

Juan saguaren abenturak

Martxoak 5, ostirala. Juan basora joan zen perretxiko bila. Bat-batean, deabru batekin topatu zen.

Juanek esan zion:

—Ez dizut beldurrik!

Orduan, Karlos izeneko deabruak apustu bat egin zion Juani. Handik bi astetara heldu zen eguna lehiarako. Lehia lasterketa egitea zen eta galtzen zuena bestearen zerbitzaria izango zen. Juanek irabazi zuenez, esan zion Karlos deabruari perretxiko onak ekartzeko eta haiekin bazkaria prestatuko zuela, asko gustatzen zitzaion-eta sukaldatzea eta oso ona baitzen horretan.

Juan oso ospetsua zen, liburu oso politak idazten zituelako. Hori jakin zenean, errege izendatu zuten.

Egun batean gaixotu egin zen. Orduan herriko jendea triste jarri zen. Erabaki zuten noizbehinka Juani bisitan joatea, gailera batzuk eramatera eta familiarrak zer moduz zegoen galdetu eta pixka bat hitz egitera.

Hiru aste geroago, sendatu zenean, ipuin oso-oso polit bat idatzi zuen. *Benjaminek estenario baten gainean kantatzeko beldurra zuen* zeukan izenburua liburuak eta arrakasta handia izan zuen. Gero eta gehiago saltzen ari ziren.

Karlos deabru zerbitzaria enteratu zenean, haserretu egin zen, bera ez zelako ospetsua, eta berak ere liburu bat idatzi zuen. Neska batek, Paula izenekoak, irakurri zuen eta ez zitzaion gustatu. Egunkari bateko idazlea zenez, Karlosen liburuari buruzko kritika bat idatzi zuen. Karlosek kritika irakurri zuenean, haserretu egin zen eta momentu hartatik aurrera ez zuen periodiko gehiago irakurri eta liburu gehiagorik idatzi.


Juan saguak Karlos bere zerbitzariari esan zion:

—Ni hiltzen naizenean, nire etxea zeurea izango da; baina, egun batean asper-tuta baldin bazaude eta ez baldin badakizu zer egin, liburu bat idatzi. Baina bihotzetik ateratzen zaizkizun gauza politak idatzi!

Hura adituta, Karlosek ulertu zuen Paulari zergatik ez zitzaion gustatu bere liburua. Orduan, Karlosek beste liburu bat idatzi zuen eta Paulari, irakurri zuenean, asko gustatu zitzaion. Deitu eta Karlosi esan zion horrela segitzeko.

Karlosek horrelaxe segitu zuen eta ospetsua egin zen azkenean.

Egun batean, Juan paperik gabe geratu zen. Dendara joan eta, begiratu bat egin ondoren, galdetu zuen:



Saioa Basurko

—Ba al dago paper totxo bat?

—Ez, ez dago papertxo bat ere —erantzun zioten.

Hurrengo egunean Juani deitu zioten dendatik, hogeï paper totxo zeudela esateko. Juan dendara joan eta paper totxo bat hartu zuen. Geroago etxera joan zen, paper bat hartu eta marrazki bat egin zuen.

Hurrengo egunean, hamaiketan, korrika pixka bat egitera atera ziren Juan eta Karlos. Juanen familiak eta Karlosen familiak batera afaldu zuten. Handik bost egunetara Juanen eta Karlosen familiak batu egin ziren saskibaloiko partida bat jokatzeko Labrof ekipoaren kontra. Juan eta Karlosen familiek irabazi egin zuten.

Egun batean Juan ezkondu egin zen eta bere emaztea erregina bihurtu zen. Handik hiru astetara Juanek eta emazteak arau berri bat jarri zuten: ezin zela gauzarik saldu baimenik gabe.

Geroago, jendeak Juanen beste liburu bat irakurri nahi zuen. Orduan, Juan liburu berria idazten hasi zen. Liburua bukatu zuenean, jendeak irakurri zuen eta gustatu zitzaion.

Orduan, Karlosek Juani urtebetetzeko festa bat prestatu zion. Gonbidatuak heldu ziren eta argiak itzali zituen Karlosek eta Juani deitu zion. Juan gelara joan zen eta argia piztu zuenean denek esan zuten:


—Sorpresa!

Festa bukatu baino lehen, Juanek opariak ireki zituen eta asko gustatu zitzaizkion. Opariak ireki ondoren, tarta pixka bat jan zuten denek. Juanek liburua pixka bat gehiago idatzi zuen eta gero ohera joan zen deskantsatzeko.

Hurrengo egunean Karlosek Juani gosaria eraman zion, bere andrea lanera joan zelako. Geroago Juanek liburuarekin segitu zuen eta Karlos sukaldera joan zen gosaltzera. Bazkaltzeko, Karlosek txanpiñoi tortilla egin zuen eta Juanek, hamabi eta erdietan txanpiñoi tortilla probatu zuenean, oso goxoa zegoela esan zion Karlosi. Gero, Juan siesta egitera joan zen, ondoren kalera paseatzera ateratzeko. Afaltzeko, makarroiak prestatu zituen Karlosek. Juanek makarroiak jan ondoren, Karlosi oso goxoak zeudela esan zion.

Horrela pasatzen zituzten egunak Juanek, Karlosek eta beren familiek: elkarrekin eta pozik.

Mikel Genova



Intza Beaumont

Uharte galdua

Baziren behin bi anaia, Max eta Mart izena zutenak. Egun batean, dirurik ez zutenez, itsasontzi batera sartu ziren ordaindu gabe. Hasieran bidaia oso ondo hasi zen. Itsasoa bare zegoen eta zerua urdin. Bat-batean, zerua ilundu egin zen. Hodei beltz eta mardulak agertu ziren. Haizea harrotu zen eta itsasoa erabat zakartu zen. Itsasontzia okertzen eta okertzen hasi zen. Hainbeste okertu zen, hondoratu egin zela. Bi anaiak surfeko taulak hartu eta itsasora salto egin zuten. Itsaso zabalean galdurik zeuden.


Asteak pasa ziren lehorrera iritsi zirenerako. Uharte galdu batera iritsi ziren. Uhartean ura eta janari bila hasi ziren. Horretan ari zirela, indio batzuk agertu ziren. Bi anaiak korrika hasi ziren; baina harrapatu egin zituzten. Indioek totemetan lotu zituzten.

Maxek proposamen bat egin zien indioei: borroka egingo zutela. Irabazten bazuten, aske utziko zituzten eta, galtzen bazuten, berriro ere lotu. Indioak ados zeuden. Horrela, hurrengo goizean borrokan egin zuten. Indioak oso gogor hasi ziren, baina Max eta Mart oso trebeak ziren eta irabazi egin zuten. Indioak konturatu baino lehen, korrika alde egin zuten.

Neka-neka iritsi ziren uhartearen beste aldera. Han kobazulo bat ikusi zuten. Bertan sartzea pentsatu zuten; baina, sartzen hasi zirenean, saguzarrak, arratoiak eta sugeak zeudela konturatu ziren. Hondartzatik enbor lehorrak hartu eta erre egin zituzten. Kearekin animaliak ito egin ziren. Max eta Mart kobazulora sartu ziren.

Han egun oso bat igaro zuten indarberritu arte. Kobazulotik atera zirenean, baso batera joan ziren. Basotik barrena zihoazela, lehoi bat agertu zitzaien. Ahalik eta azkarren, zuhaitz batera igo ziren. Lehoia zuhaitz inguruan bueltaka ibili zen; baina, halako batean, asperturik, joan egin zen. Max eta Mart, urduri, zuhaitzetik jaitsi ziren. Bidetik zihoazela, erreka bat topatu zuten. Erreka pasatzen ari zirenean, Martek zerbait zapaldu zuen. Krokodilo kume bat zen! Eskerrak krokodiloa lo zegoen. Beste aldera pasa zirenean, txakur bat aurkitu zuten. Txakurrari Txeis deitu zioten.

Txeisek herri batera eraman zituen. Herri hartan, robotak eta estralurtarrak bizi ziren. Kaian, itsasontzi pirata bat zegoen. Itsasontzi hartako jefea estralurtar bat zen. Max eta Mart itsasontzira sartu ziren. Orduan, itsasontzia itsasoratu egin zen. Itsasotik itzal erraldoi bat agertu zen. Tsunami bat zen. Itsasontzia ia-ia hondoratu egin zen. Itsasontzia berriro kaira itzuli zen. Mart eta Marx itsasontzitik jaitsi ziren. Han agertu zen Txeis saltaka.



Ainhoa Uranga

Bat-batean lurra dardarka hasi zen. Uhartean zegoen Kilikili sumendia esnatu eta suzko bolak jaurtitzen hasi zen. Egoera oso arriskutsua zen. Hirurek ur azpira egin zuten salto. Ur azpian mundu harrigarri bat deskubritu zuten. Han zegoen kobazulo batetik sartu ziren. Kobazulo hark sumendira eramaten zuen. Mart, Marx eta Txeis sumendiko ahotik atera ziren eta uharteko estralurtarrek jainkotzat hartu zituzten.

Handik aurrera, Marx, Mart eta Txeis primeran bizi izan ziren uharte galduan.

Iker Sarasua

Zergatik?

Zergatik esaten dugu
animaliak maite ditugula,
eta gero ikusten dira zooak
jendez beteta daudela?


Zergatik esaten dugu euskara maite dugula
toki guztietan,
eta gero gaztelania erabiltzen dugu
kale eta etxeetan?

Mundu guztiak nahi du
guduak bukatzea,
zergatik jendeak ez du nahi orduan
armak desagertzea?

Asko gustatzen zaigu
gauzak pilatzea,
zergatik kostatzen zaigu hainbeste
behar dutenei ematea?

Zergatik gaude
birziklatzearen alde,
eta gero askok hondakinak botatzen dituzte
bereizi gabe?

Maialen Orbañanos



Aimar Arruti

Izeba Maria


Izeba Maria
mari-maistra...
ikasleak bakarrik gelan,
a, zer xestra!

Izeba Maria
mari-kuxkuxera...
arratsaldero gortina artetik
begiratzen du kalera.

Izeba Maria
mari-lotsati...
masailak gorritzen zaizkio
sarritan ederki.

Izeba Maria
mari-pinpirina...
tatuatuta darama
besagaina.

Udane Ostolaza



Aratz Salsamendi

Agur, Kamila!

Egunak daramatzat gutun baten zain.

Esaten dutenez, gutunei ez zaie garrantzirik eman behar; baina nik bai.

Nire lagun Kamilak dioenez, gutunak helduei bakarrik gustatzen zaizkie; beno, adinekoei eta jakintsuei. Orduan esaten diot, heldua ez naizenez, jakintsua izango naizela. Berak dioena ez dut oso ondo ulertzen, eta berak, aldiz, dio oso-osoa argi azaltzen duela.

—Nire aitona jakintsua izango da orduan, ezta? —esan nion jakin-minez beterik.

—Baliteke hala izatea, baina esango nuke zu bezain txorua dela hura. Gainera, heldua da... —hasi zen esaten. Nik moztu egin nion, ordea:

—Barkatu! Nire aitona ez da heldua, nire aitona aitona da! Beraz, zure teoriaren arabera, jakintsua izango da —esan nuen haserre. Kamilak ez zekien zer erantzun, baina antzeman nion arrazoi nuela esan nahi zidala.

—Ado... —hasi zen esaten, baina azkar moztu nion:

—Tira, tira! Ez esan hori ni sutan ez jartzeko... Zuk uste duzuna esan eta kito!

Hurrengo egunean amari eta aitari gosarian galdetu nien ea berak zer ziren, helduak ala jakintsuak.

—Ama, zu zer zara, heldua ala jakintsua? Eta zu aita?

Biek barre egin zuten. Ondoren, esan zuen aitak:

—Ni jakintsua, jakina! Heldua ere banaiz, baina nahiago dut jakintsua izatea.

—Ba, ni heldua —erantsi zuen amak, serio ari nintzela ikustean.

Gutxira, jarraitu zuen amak:

—Amonaren ebakuntza eguna da, Lucia. Bera ikustera joango gara aita eta ni. Osaba Santiago etorriko da zurekin egotera.

—Iupi! Osaba Santiago! —esan nuen, amonaren egoerari kasu handirik egin gabe.

Geroxeago konturatu nintzen amona operatzeko momentua garrantzitsuagoa zela eta ni saltoka eta garrasika hastea ez zela oso egokia izan. Baina osaba Santiago beti txantxak egiten egoten zen eta ondo pasako genuen!



Irati Uranga

Ateko txirrinak jo zuen.

Korrika abiatu nintzen atea irekitzera. Aita eta ama dotore-dotore zeuden prestatuta. Ate aurrera joan ziren, osabarekin elkartzera. Osaba pakete handi batekin zetorren, eta niri begiak zabaldu zitzaizkidan. Amak eta aitak muxu bana eman zidaten eta agur esan, noski!

Orduan, osaba Santiago eta ni egongelara abiatu ginen. Besaulkian eseri eta pakete handi bat eman zidan.

—Tori Lucia, zuretzat! —esan zuen, serio nengoela ikustean.

—Eskerrik asko, baina gero irekiko dut.

Pasa orduak eta orduak... Gaua iritsi zen, eta goibel nengoen. Giltza soinuak poztu ninduen:

—Kaixo, ama; kaixo, aita!

Ama negarrez zetorren eta esan zidan:

—Amona hil egin da. Ebakuntza eta gero ez da esnatu —eta bere logelara joan zen.

Osabak alde egin orduko amak arropa ezezagun bat erakutsi zidan, jertse bat. Antza, ni txiki-txikia nintzela amonak egin zidana, bera hiltzen zenean nik janzteko. Jantzi nuen bada eta, harrigarria bazen ere, nire tamainakoa zen.

Handik aste batera-edo, afaltzen ari ginela, amak aitari begiratu eta iruditu zitzaidan esan zuela:

—Orain?

Baina aitak ezetz erantzun zion. Gainera, afaria oso txarra zegoen: pizza errea, jogurta eta barazkiak saltsan, dena nahastuta. Arraroa zen etxeko giroa, zerbait nabaritu nuen; baina ez nuen ezer esan. Gero, hortzak garbitzerakoan, komunean giltzapetu ziren aita eta ama. Nik ezer sumatu ez banu bezala jokatu nuen.


Ohean sartuta nengoela, nire ondoan eseri ziren. Amona hil zenez, bere etxera joango ginela bizitzera esan zidaten.

—Zergatik, ama? Zergatik, aita? Hemen geratu nahi dut! —hasi nintzen negar zotinka. Baina gurasoek esandakoa ezin da aldatu!

Hurrengo egunean ikastolan...

—Ez dakizu zer gertatu zaidan! —esan nion Kamilari.

—Zer? —erantzun zidan jakin-minez eta presati.



June Urbitarte

—Ba... —hasi nintzen.

—Ba, ba eta ba! Esan, behingoz! —moztu zidan.

—Beno... ba, laster etxez aldatuko naiz eta ez naiz hemen biziko; herrian bertan ez behintzat...

Eta ezer esan gabe alde egin zuen Kamilak.

—Kamila... Etorri, Kamila!

Kamila komunean sartu zen. Egia esan, ez nekien komunean sartu zen ala betirako alde egin zuen. Eguna luze-luzea egin zitzaidan. Gero ez nuen afaldu ezta tarta zati txikiena ere! Seguru Kamila ere berdin egongo zela. Nik ez nuen ulertzen zer arraio gertatu zitzaion. Ziur aski pena hartuko zuen edo haserretu ala... Dena dela, deitzea erabaki nuen.

Deitu nion, baina telefonorik ez zidan hartu.

Pasa ziren orduak, egunak eta baita hilabeteak ere eta ez neukan Kamilaren berririk. Banekiena zera zen, ez zela eskolara etortzen ezta egun batean ere! Festara ere ez zen etorri. Haren ama etortzen zen egunero-egunero anai txikiarekin eta egun batean Kamilaren galdera egin nion.

Ospitalean zegoela esan zidan.

—Ospitalean? —galdetu nion, guztiz harrituta.

—Bai, kolpe handi xamar bat hartu zuen komunean zegoela —erantzun zidan.

Nire errua zela sentitu nuen.

Gero etxean...

—Ama! Kamila ospitalean dago —esan nion.

—Nolatan? Zer gertatu zaio? —galdetu zidan.

—Bueno... kolpe bat hartu zuen.

Egun batean beste toki batean esnatu nintzen. Ez nekien non, baina polita zen tokia. Bat-batean ezaguna egin zitzaidan. Amonaren etxea zen, alajaina! Amonaren etxean nengoen!

—A! Badakit! Bizitzera etorri ginen atzo eta!

Egunak joan, egunak etorri Kamilarekin gogoratzen nintzen.

Behin amarekin ikusi nuen eta, korrika, berarengana joan nintzen. Makuluekin zebilen eta buruan zauri itxi bat zuen. Kamilak etxearen kontua ahaztuta zeukan.



Magali Agote

—Kamila! Kaixo! —oihu egin nion poz-pozik.

—Hola, Lucia! —esan zidan, alai-alai.

Nik azaldu nion ez nintzela herri hartan bizi.

Geroztik geratzen hasi ginen, askotan gainera.

—Elkartuko gara? —esaten zuen batek.

—Ados! —erantzun besteak

Aurrerantzean, amonaren jertsea janzten hasi nintzen eta osaba Santiagoren oparia zabaldu nuen: pakete bat zen eta, barruan, beste bat eta horrela hamar pakete, eta bukaera-bukaeran, txikle bat. Txikleka Kamilak eta nik erdibana jan genuen. Eta une hartan argitu genuen: bera eta ni jakintsuak ginen eta besteek hor konpon!

Handik gutxira:

—Lucia, gutun bat duzu —esan zidan aitak.

—Norena? —galdetu nuen.

—Kamilarena —erantzun zidan.

—Erakutsi azkar! —nik, poz-pozik.

Gutunean jartzen zuen laster nire bizilaguna izango zela.

—Hona dator bizitzera!

Hartu nuen poza betirako izan zen; beti elkarrekin ibiliko ginen. Hil arte oso lagunak izango ginela pentsatu nuen, nahiz eta beste lagun asko eduki. Gainera, hauxe ikasi nuen:

Lagunak, benetakoak, lagun minak... betirako dira!

Haizea Arrizabalaga



Arantza Igartua

Inurriaren abentura

Bazen, Londres hiritik nahiko urruti, etxe handi bat. Lorategi bikain bat zuen, lorez eta arbolez beteta, eta belarra fin-fin moztuta zegoen. Lorategiko arbolarik handienaren azpian bazen inurritegi bat. Egunero zuhaitzean gora eta behera janaria garraiatzen ibiltzen ziren inurriak.

10.000 inurrien artetik bazen kuxkuxero bat, beti bere lagunei nazka partitzen zebilena eta, gainera, alfer hutsa zena.

Bero handia egiten zuen goiz batean inurriari asko kostatzen zitzaion beste inurriekin batera janaria biltzera joatea, Beraz, aitzakia bat asmatu zuen lanera ez joateko: gaixo zegoela esan zuen.

Beste inurriek sinetsi eta etxean gelditzeko esan zioten.

Gure inurria poz-pezik zegoen, besteek sinetsi egin zutelako bere gezurra.

Baina kanpora joateko gogoaz zuen, ez baitzuen bere bizi guztian arbola eta inurritegia besterik ezagutu; beraz, lorategia esploratzera joan zen.

Oinez dezente ibili eta gero, harrizko etxe bat ikusi zuen.

Etxearen azken leihoan gauza berde bitxi bat ikusi zuen mugitzen alde batera eta bestera. Jakin-minez, esploratzera joatea erabaki zuen.


Inurritegira joan, motxila hartu eta han abiatu zen etxea esploratzera. Atea pasa eta korridore luze bat ikusi zuen, zorua marmol beltz eta zuriz estalia zegoen eta izugarri irristakorra zen. Labaindu eta ia mendi bat bezalako gurguilua egin zuen. Denbora luzean egon zen lurrean, konortea galdua. Esmatu zenean, pertsona batek zapaldu egin zuen; baina, hala ere, gure inurria oso indartsua zenez, ez zuen horrenbesteko minik hartu.

Askatu zenean zapatila nazkagarri eta itsagarri hartatik, bere ingurua oso aldatua zegoen. Izugarritzko altzariak zeuden inguruan.

Bat-batean, atso zahar bat pasa zen bere aldamenetik eta kozinatzen hasi zen.

Betaurrekoak erori zitzaizkion inurriaren aldamenera eta, atsoa makurtu zenean, inurria ikusi zuen.

Beldurtu egin zen eta garrasi egiten hasi zen. Inurria ere beldurtu egin zen eta korrika hasi zen, zoro baten antzera, ezkutatzeko toki baten bila. Hozkailua ikusi zuenean, hara sartu zen eta atea itxi zuen. Denboraldi bat pasa ondoren, izotz bloke baten barruan zen.



Candy Ostolaza

Konturatu zenean ezin zela mugitu, kezkatzen hasi zen. Atea ireki eta izotz hori urtzeko zerbaiten bila hasi zen. Bat-batean, butanozko labea ikusi eta hara salto egin zuen. Izotza urtzen hasi zen, baina bere ipurdia sutan hasi zen.

Zerbaiten kontra jo eta hodi bat puskatu zuen. Handik gasa ateratzen hasi zen. Momentu hartan gizon bibote handi bat sartu zen gelan eta esan zuen:

—Maitea, prest al da afaria?

Bere purua ahoan hartu eta metxeroa piztu zuen.

Leherketa erraldoi bat gertatu zen.

Boooooom!

Etxe guztia kiskali zen eta, zoritxarrez, lorategiko arbola ere bai.

Gure inurria eta beste batzuk salbatu egin ziren, beste lorategi batera joan ziren bizitzera eta beste inurritegi bat egin zuten.

Beñat Uranga

Oporretara noa

Oporretara joan nahi
pozik egoteko,
pistina guztietan
asko bainatzeko,
eguzki asko hartu,
beltzaran jartzeko...
Hamar egun banoa,
ni deskantsatzeko.

Nagore Iturralde



Nahia Stapa

Sentimenduz betea

Bizimoduak ematen dizkigu kolpeak sarri.
Guri tokatu zaigu sufritzea ugari.
Espero ez genuen gaitz txar batek
eraman zaitu azkarregi.
Eta hementxe nago ni,
eutsi ezinik negarrari.
Denontzako izan zara eredugarri.
Begiratzen diodanean zeruari
pentsatu nahi dut
izango zarela beti nire zaindari.
Honekin amaitzen dut esanez:
Ikusi arte nire izeko maiteari!

Candy Ostolaza

Orioko herrixkaren sekretua

Egun batean, Leire, Naia, Iker eta Julen jolasean ari ziren hondartzan, eta Naiak esan zuen:

—Lagunak, Urtezahar eguna denez, gaur hondartzan geratuko gara parrandan!

—Ongi da! —esan zuen Ikerrek.

Horixe egin zuten: kanpaiak ospatu zituzten mahatsak janez eta, bat-batean, barra muturretik ke misteriotsu bat azaldu zen. Lagunak harriturik zeudela, Leirek esan zuen:

—Goazen barra muturrera, jakin-min handia dut eta!

—Nik ere bai! —esan zuten Naiak eta Julenek.

Ikerrek, ordea, kuzkurturik, esan zuen:

—Ez dakit ba... zera... ni joan... —baina, orduan Naia, Leire eta Julenek besotik heldu eta esan zioten:

—Beldurri halakoa! Zu gurekin zatoz!



Eider Arizaga

Ikerrek, atsekabeturik, onartu egin zuen. Lau lagunak ke misteriotsuraino joan ziren oinez eta hantxe aurkitu zuten itsasontzi bat, harroketan trabatuta. Julenek esan zuen:

—Goazen barrura, agian altxor-kutxa bat egongo da eta!

—Ongi da, horixe egingo dugu! —esan zuten Iker, Naia eta Leirek.

Itsasontzi barruan sartu eta denetik aurkitu zuten: kupelak, kandelak... baina altxor-kutxaren aztarrenik ez. Orduan, Leirek esan zuen:

—Zuek piratak izango bazinate, non gordeko zenukete altxorra?

—Nik nire ohe azpian —esan zuen Naiak.

—Ba... nik... komunean —erantzun zuen Julenek.

—Nik ez nuen aurkituko altxorra; beraz, ez dakit —esan zuen Ikerrek.

Denak barrez hasi ziren eta, orduan, Iker lurrean eseri zenean, zulo batera erori zen eta esan zuen:

—Aurkitu dut altxor-kutxa! Aurkitu dut!

—Oso ondo, Iker! Detektibe bikaina zara. Iker Holmes deituko dizugu hemendik aurrera —esan zion Julenek.

Altxor-kutxa hartu eta kanpora atera ziren. Hondartzara bueltatu eta altxor-kutxa ireki zuten. Barruan mapa bat zegoen: Orioko mapa zahar bat, erdi-erdian *HASIERA* jartzen zuena. Jarraian, gezi bat eginez, *PISTAK JARRAITU* jartzen zuen. Une horretan aitona bat gerturatu zitzaien eta esan zien:

—Zer egiten ari zarete?

Denak ikaratu egin ziren. Ikerrek, gezurrik esaten ez zekienez, egia esan zion. Aitonak bere etxera gonbidatu zituen, eta mapa ondo aztertu zuten. Lehenengo pistak honela esaten zuen: *Milaka eta milaka korrokoi, triste joatean, pozik itzultzean, grabatuta dago batzuen oroitzapenetan.*

Orduan, amona bat gerturatu eta esan zien:

—Zertan zabailtzate?

Aitonak dena azaldu zion. Pistak bilatzen hasi eta mila buelta eman zizkioten asmakizunari eta, bat-batean, Ikerrek esan zuen:

—Badakit: moila!

—Hori da! —esan zuten beste hiru lagunak batera, Ikerri bostekoak emanaz.

Moilara joan ziren eta han pista gehiago aurkitzen hasi ziren. Halako batean, andre batek galdetu zien:



Naroa Arriaran

—Zer ari zarete bilatzen? Ni Miren saregilea naiz. Zer daukazu eskuetan, mutiko? A, mapa bat! Baina nire Guillermo birraitonaren sinadura da-eta!

Eta honela jarraitu zuen:

—Duela urte dezente, moila, plazaren aurrean jarri eta 20 pausotara zegoela esaten zidan birraitonak.

Leirek 20 pausoak egin eta lurrean botoi moduko bat aurkitu zuen. Laurek batera kalkatu egin zuten. Berehala, tranpailu bat ireki zen lurrean. Barruan sartu eta ohar hau ikusi zuten lurrean idatzita, botoi batzuen ondoan: *Asmakizun hau ez badakizue, hil egingo zarete! Hasi zen lekura bueltatuko zarete, mendi politenak ikusiko dituzue. Ea asmatzen duzuen zertaz ari naizen. Oharra: gurutzeak daude.*

Iker aurreratu eta esan zuen:

—Eliza!

—Ez —esan zuen Leirek.

—Hilerrria! —esan zuten Julenek eta Naiak.

Hilerrria jartzen zuen botoiari eman zioten eta, bat-batean, hilerrrian agertu ziren. Hau harritzekoa! Han andre zahar bat zegoen eta esan zien:

—Kaixo, umeak! Zertara zatozte?

—Zera... ezer ez... lore batzuk jartzera, besterik ez... —esan zuen Naiak.

Lau lagunak korrika joan ziren pista bilatzera, andrea atzean utzita. Julenek hilotan begiratu zuen, baina han ez zegoen ezer; Ikerrek iturrian begiratu zuen, eta han ere ez zegoen ezer. Iluntzen ari zen, haize-hotza lepotik behera sartzen zitzaian, zuhaitz altu ilun eta bustiek haizearekin mugitzean hilerriko atearen ki-rrinkak beldurra ematen zuen. Belearen soinua entzuten zen eta Julen pixka bat beldurtzen hasi zen. Une hartan hontz baten hotsa entzun eta, beldurturik, sekulako garrasia bota zuen, herri osoan entzun zena, eta, horrekin batera, hilobi huts baten barrura erori zen. Han barrutik esan zuen:


—Aurkitu dut! Aurkitu dut pista! Orain lagundu hemendik ateratzen!

Lagunek handik ateratzen lagundu zioten.

—Orain goazen hemendik, beldurtzen hasita nago eta! —esan zuen Ikerrek.

Lagunak arrapalada batean atera ziren hilerritik eta bakoitza bere etxera joan zen, pistarena hurrengo egunerako utzita.

Hurrengo egunean mezuak bidaltzen egon ziren ea zer ordutan geratuko ziren erabakitzeke. Azkenean, 10:30ean geratu ziren. Inork ez zuen lorik egin; batez ere Julenek, gaueko sustoagatik.



Naroa Loidi

10:30ak iritsi ziren. Ordurako Leire eta Naia geratutako lekuan zeuden eta, Iker eta Julen iritsi zirenean, pistarekin lanean hasi ziren. Pistak honako hau esaten zuen: *Oso gertu zaudete baina hau zailena da; beraz, argi ibili. Beti eduki dut eskuetan eta beti edukiko dut altxorra. Oharra: niretzat egin duten gauzarik politena da.*

Leirek esan zuen:

—Badakit, ez da zaila: hilerrian dago altxorra! Guillermo marinelaen hilobian dago. Goazen hilerrira!

—Hori da —esan zuten beste hiru lagunek.

Horixe bera egin zuten: hilerrira joan ziren, hilobia aurkitu zuten eta konturatu ziren Guillermo marinelaen estatuak beste botoi txiki bat zeukala. Botoiari eman zioten eta tranpailu bat ireki zen. Naia barrura sartu zen eta, atzetik, Iker, Julen eta Leire.

Hantxe zegoen altxorra... urrezko lingote batzuk ziren.

Beren azken abentura izango ote zen?

Leire Olariaga

Abentura kosmikoa

Madrilgo Pedro, Adrian eta Maria oso lagun onak ziren. Hamaika urte zituzten. Beno, Pedrok hamabi urte zituen. Talde xelebrea eta imajinario handikoa zen. ATOMOAK izena zuen beren taldeak. Hirurei La2eko zientziako programak ikustea gustatzen zitzairen. Handiak izaterakoan, zientzialari izan nahi zuten. Beno, Adrianek ingeniari izan nahi zuen. Ez zuten dokumentalik galtzen. Dokumentalak ikusi eta gero, buelta bat ematera joaten ziren. Bukatzerakoan, ONCEko *raska* baten bila joaten ziren. ONCEko mutilak txartelak saltzen zituen, txartel bereziak, laborategi bat dohainik ezagutzeko aukera ematen zutenak.

—Ikusi! Tokioko laborategi baterako bisita bat irabazteko loteria! —esan zuen Pedrok.

—Gainera, sei pertsonarentzat!

Bakoitzak hiru txartel erosi zituen. Etxera iritsita, sei eta erdietan ematen zuten La2eko zientzia atala ikusten hasi ziren. Atal horretan, Tokioko laborategi bat erakutsi zuten.



Sara Mujika

—Itxaron! —esan zuen Pedrok— Uste dut... Bai, loteriako laborategia da telebistan erakusten ari direna.

—Bai, zera! —hirurek arretaz ikusten zituzten atal guztiak, baina atal hartan bereziki adi egon ziren.

Handik bi astetara, loteriaren tonbolaren atala eman zuten La2en. Zenbaki irabazleak hauetxek izan ziren:

2716 - 1293 - 9461 - 7359.

Ez zitzaien tokatu.

—Beno. Behintzat, saiatu egin gara —esan zuen Pedrok.

—Goazen parkera! —esan zuen Adrianek—. Haizea hartu nahi dut.

Parkerako bidean, ONCEko loteriako beste txartel bat aurkitu zuten lurrian. Begiratzen hasi ziren, eta... 2716 zenbakia zuen txartelak!

Korrika joan ziren ONCEko mutilarengana. Bi minututan ailegatu ziren hirurak. Txartela eman eta hegazkinaren txartelak eman zizkien ONCEko mutilak.

Hirurak pozik joan ziren etxera. Ailegatutakoan, aitari esan eta, hurrengo egunean, aireportura joan eta Tokiorantz abiatu ziren.

Bi eguneko bidaiaren ondoren, Tokiora iritsi ziren. Hotela luxuzkoa zen. Igerileku pribatu bat zuten, eta handik laborategia ikusi zitekeen.

Laborategira abiatu zirenean, kamioi bateko fruta gainera erori zitzaion Mariari. Handik pasatzen ari zen ume bat Maria laguntzera joan zen.

—Ondo al zaude? —galdetu zion mutilak.

—Bai —esan zion Mariak.

—Txan izena dut, eta zu?

—Maria.

—Nahi al duzu Tokio erakustea?

—Bai, baina nire lagunekin.

Orduan, laurak joan ziren Tokio ezagutzera,

—Eta, bukatzeko, nire aitaren laborategia! —esan zuen Txanek

—Momentu bat... —esan zuen Adrianek— Hau ONCEko zozketaren laborategia da!

—Ez da posible!

Hirurak harrituta geratu ziren.

—Nahi al duzu etorri bihar gurekin laborategira, Txan?

—Niregatik, bai. Ea nire aitak uzten didan...

Hurrengo egunean, parkean bildu ziren laurak.

—Orduan, utzi al dizute gurekin etortzen? —galdetu zuen Mariak.

—Barkatu, baina ez didate utzi.

—Jope! —esan zuen Mariak.

—Ideia bat dut... —esan zuen Pedrok— ONCEko loteriaren txartel bat oparitzen badiogu, etorri ahal izango da. Eta, gainera, gidatutako bisitarekin!

—Ondo da! —esan zuen Mariak— Tori txarteletako bat.

Orduan, laurak joan ziren laborategira. Hamarrak eta laurdenetan ailegatu ziren. Oraindik hamar minutu geratzen ziren bisita gidatua hasteko.

—Hamar minutu geratzen direnez, nahi al duzue nire aita ikustera joan? —esan zuen Txanek.

—Bai, noski!

—Goazen, ba!

Orduan, hirurak Li jauna ikustera joan ziren. Li jaunaren bulegora iristerakoan, Txanek aurkeztu egin zituen.

—Aita, hauek nire lagunak dira: Adrian, Maria eta Pedro.

—Kaixo, mutilak! —esan zuen Li jaunak.

—Kaixo! —esan zuten Madrilgoek batera.

Hitz egiten egon ziren. Hamar minutu eta gero, sarrerara joan ziren bisita gidatura.

—Kaixo, Tekuro izena dut, eta zuen gidaria izango naiz.

Ongi etorri Atari laborategira! Gaur egun oso on bat pasatuko duzue. Gauza asko ikasiko dituzue eta, azkeneko momentuan, sorpresatxo bat dugu zuentzat.

Bisitan gauza asko ikasi zituzten, gidariak esan zuen bezala. Gauza berri asko ikusi zituzten.

—Eta, bukatzeko, gure laborategiko proiekturik garrantzitsuena, SUPERSIMULADOREA! Simuladore honek edozein tokitan zaudela simulatzen du: errealitatean edo errealitate faltsu batean. Gainera, zu ere faltsua bihurtzen zaitu.

—Probatu dezakegu, mesedez? —galdetu zuen Adrianek.

—Bai, noski! Ze mundutan edo tokitan nahi duzue atera?

Laurak pega-pega jarri, eta adostu egin zuten.

—Sin Chanen mundura nahi dugu joan —esan zuen Txanek.

—Ongi da! Sin Chanen mundura, orduan. Listo, dena prest!

Sartzerakoan, dena kolorez aldatzen hasi zen. Izugarrizkoa izan zen dena. Ateratzen saiatu ziren; baina, ezin zuten atera. Laurak negarrez hasi ziren. Zientzialari guztiak ateratzeko modu bat bilatzen hasi ziren. Azkenean, aurkitu egin zuten, baina ez zen erraza izan. Mundu hartako beste alderaino joan behar izan zuten. Han botoi bat konektatu behar zen, eta botoi hari sakatuz gero, ateratzea lortuko zuten. Baina problema bat zegoen... Botoi hura Sin Chanek zuela. Toki guztietatik bilatu zuten Sin Chan, baina ez zuten aurkitzen. Azkenean, Sin Chanen etxera joan eta bere logelan aurkitu zuten.

—Kaixo, Sin Chan! —esan zuten laurok batera.

—Kaixo, zeintzuk zarete?

—Berdin du, eman botoi horri! Azkar!

Baina Sin Chanek ez zion botoiari sakatu nahi.

—Botoiari emango diot, nirekin jolasten bazarete.

Ordu bat egon ziren jolasten eta, azkenean, botoiari sakatu zion. Korrika joan ziren beste aldera. Botoia konektatu bezain laster, sakatu egin zuten.

Ateratzerakoan, Txanek dena grabatu zuela esan zien. Eta, orduan, oso-oso famatuak egin ziren.

Eta, hala bazan eta ez bazan, sar dadila Tokioko plazan!

Lukas Martin



Laida Romero

Esaten zuten...

Ez korrika egin, mantsoa zara...
esaten zuten.
Ez izan asmatzailea, baldarra zara...
esaten zuten.
Ez igeri egin, gaizki egiten duzu...
esaten zuten.
Ez jantzi soinekoa, gaizki geratzen zaizu...
esaten zuten.
Kasu egin zien
eta, orain, nahi ez duen bidetik doa...
Hartu zure bidea!
Ez utzi besteei zure bizitza aldatzen!

Ane Rodriguez

Zu

Zu, nire bihotza
zu, nire bizitza osoa;
zu ezagutzea,
nire oparirik hoberena.
Nire ametsetan
marinelek itsasoa baino gehiago
maite nauzu,
baina tristea da errealitate ez izatea.
Existitzen ez naizela uste duzu,
zure bihotza beste batena da-eta.

Mikel Zurutuza



Aroa Sanchez

Martina

Martina 75 urteko emakume bat zen. Donostiarra zen eta alde zaharreko pisu txiki batean bizi zen. 55 urte besterik ez zituela, senarra hil zitzaion eta alargun geratu zen. Bi seme zituen, Asier eta Mikel, baina baziren hiru urte ez zituela ikusten, Asier Londresen eta Mikel Islandian bizi baitziren. Nahiko bakarrik sentitzen zen Martina. Batzuetan bere lagunekin kartetan jolastera joaten zen, etxetik 7-10 minutura zegoen taberna batera, nahiz eta oso gustuko ez izan. Bunny izeneko untxi bat izan zuen, baina duela bi aste hil egin zitzaion, eta Martina bakarrik geratu zen. Nahiko bizitza aspergarria zuen, egia esan.

Astero bezala, etxea garbitzen hasi zen: erratza pasa zuen, leihoak garbitu zituen... Gela txukuntzen ari zenean, txikitako oroigarriak —liburuak, argazkiak, panpinak...— gordetzen zituen kaxa aurkitu zuen, gelako armairuaren gainean. Malkoren bat edo beste erori zitzaion oroigarriei begira eta, kaxa gordetzera zihoanean, paper zimurtu eta zaharkitu bat erori zitzaion lurrera. Jasotzera joan zenean, konturatu zen bere hamargarren urtebetetzean egindako amets-zerrenda zela: hartz txuri baten atzetik Ipar Polotik barrena ibiltzea, etxe handi batean bizitzea... eta beretzat garrantzitsuena zena: Everest mendira igotzea.

Momentu hartan konturatu zen, armairuko ispilu erdoilduan bere burua ikustean, urteak aurrera joan ahala bera ere heriotzara hurbiltzen zihoala. Bere aurpegi zurruna zimurrez beteta zegoen, ibiltzeko zailtasunak zituen eta gero eta gauza gehiago ahazten zitzaizkion.

Bere bizitzari buruz hausnartzen hasi zen eta bere buruari galdetu zion ea zer egin zuen bizitzan, ea norbaiten bizitzan eragina izan ote zuen. Orduan, konturatu zen ez zuela ezer egin, etxea garbitu, janaria prestatu eta umeak zaintzeaz gain. Ez zuen inoiz bidaiarik egin, ezta kirolik ere... ezertxo ere ez.

Aste osoa pentsatzen pasa ostean, bere nahirik handiena betetzea erabaki zuen: Everest mendira igotzea.

Ez telefonorik, ez internetik ez zeukanez, inori laguntza eskatu gabe, taxi bat hartu eta Loiuko aireportura joan zen. Sei ordu zain egon ostean, Nepalera joateko txartela lortu zuen. Baina bidaiaria hurrengo egunean zenez, aireportutik oso gertu zegoen ostatu txiki batean pasa zuen gaua. Haizeak leihoen kontra jotzean egiten zuen zaratak eta barneko urdurasunak ez zioten lorik egiten utzi.

Hurrengo goizean berriz aireportura bueltatu zen eta eguerdiko ordu batean abiatu zen hegazkina Nepalera. Zirrargarria zen Martinaren sentsazioa: noizean behin hotzikararen batek gorputza zeharkatzen zion, hegazkin batean igotzen zen lehenengo aldia baitzen. Lehenengo orduak pasa ostean, motxilatik

aireportuko kafetegian erositako patata-tortilla bokadilloa atera zuen eta bazkaltzen hasi zen. Noizean behin azafataren bat hurbiltzen zitzaion zerbait nahi ote zuen galdezka; baina Martinak buruarekin ezetz erantzuten zion. Ia bidaiaria osoa leihotik begira pasa zuen eta, gaueko hamarrak aldera, Nepalera iritsi ziren.

Lehenengo gaua Katmandun pasa zuen. Martinaren urduritasuna handituz zihoan. Goizean goiz esnatu zen eta autobusean Everestetik oso gertu zegoen herri batera abiatu zen. Eserleku librerik ez zegoenez, zutik pasa zuen bidaiaren zati handiena. Iritsi zenean, aurkitu zuen lehenengo turismo-bulegora sartu eta bertako emakumearekin luzaro hitz egin ondoren, izena eman zuen handik astebetara Everestera zihoan espedizio batean. Martinak emakumeari bere egoera kontatu zion: alegia, ez zela Nepalekoa eta ez zuela gaua pasatzeko lekurik. Hark, orduan, bere etxean lo egitera gonbidatu zuen. Martinak pozarren onartu zuen.

Azkenean, Everestera igotzeko eguna iritsi zen. Martina ikaraturik zegoen; baina inola ere ez zuen amore emango, ez horixe. Goizeko zortzietarako herriko plazara hurbildu zen eta han zain zuen mendizale talde bat. Iritsia zen bere ametsa betetzeko ordua, bere bizitza guztiz aldatzekoa.

Hasierako bi orduak jendearekin lasai hitz egiten pasa zituen; baina, orduak pasa ahala, nekea eta hotza zela-eta, gero eta zailago egiten zitzaion mendian gora igotzea.

Lehenengo bi asteak oso gogorrak izan ziren; baina Martinak ez zuen etsi, aurrera jarraitu zuen. Gauzak hobetzen hasi zirenean, egun batean, poliki-poliki elur malutak handituz joan ziren eta ekaitza sortu zen. Martina zeharo ikararuta zegoen. Taldearen erdiak aurrera jarraitu zuen; baina beste erdiak (Martina barne) kanpamentu batera joan eta han pasa zuten gaua.

Hurrengo goizean berriz jarraitu zioten bideari; baina burumakur: taldearen erdia bakarrik zirenez, askoz gogorragoa egiten zitzaien. Gainera, igo ahala, oxigeno falta eta tenperaturaren jaitsiera oso nabariak ziren.

Azkenean, hilabete bat pasa ostean, Everest gailurrera iritsi ziren. Ikaragarria izan zen Martinak sentitu zuen emozioa. Kostata; baina, azkenik, lortu zuen: 8.848 metrotara zegoen!

Bere buruaz harro sentitu zen bizitzan lehen aldiz. Argazki bat atera zuen, hainbat egunkaritan azaldu zena. Martina Everestera igotako emakumerik zaharrena zen.

Jaisten beste hiru aste eman zituzten eta, Nepalera iritsitakoan, han zeukan zain turismo bulegoko neska. Korrika hurbildu zitzaion eta besarkada handi bat eman zion. Biei begietatik malko handiak erori zitzaizkien, pozaren pozez. Orduantxe konturatu zen Martina Nepal bezalakorik ez zegoela beretzat: han biziko zela zorionsuen, hantxe gauzatu zelako bere ametsa.

Handik aurrera poz-pezik eta lagun artean bizi izan zen, egurrezko etxe txiki batean, Everesten azpian. Horrela, goizero gogoratuko zen bere ametsa bete zuen egunaz

Martina Nepalen hil zen, 97 urte zituela.

Narrea Larreta

Denak berdinak


Bazen behin Euskal Herriko herri txiki batean bizi zen neska bat. Neskak Lara izena zuen. Neska hura ederra zen, bai kanpotik eta baita barrutik ere, izan ere, beti laguntzeko prest egoten zen eta ez zuen inor bakarrik utzi edo dezepzionatzen.

Kanpotik ere polita zen: ile marroia eta begi berdeak zituen, eta altua eta argala zen. Hala ere, arazo bat zuen, besteengandik desberdintzen zuena: Down sindromea zuen, nahiz eta horrek ez zion oztoporik sortzen besteek egiten zituzten gauzak egiteko. Ikasketetan oso ongi moldatzen zen eta baita kiroletan ere; gainera, guztiek asko laguntzen zuten.

Eskubaloian ibiltzen zen bere bi lagunekin: Nerea eta Marta. Bi hauek ez zuten gaixotasunik. Nereak ile horia eta begi urdinak zituen, eta gelako neskarik ederrena zen. Martak, berriz, ile eta begi marroiak zituen eta gelako hirugarren politena zen, Lara zelako bigarrena.

Larak familia ikaragarri aberats, jator eta ederra zuen: aita Imanol, ama Cristina eta anaia Paul.

Larak, egun batean, entrenatzera joan behar zuen. Betiko moduan, berotu, entrenatu, ondo pasa, estiratu eta dutxatzera joan ziren. Aldageletan zeudela, mutil bat nahastu eta nesken aldagelara sartu zitzaien... barru-barruraino gainera... Behintzat ez zuen inor biluzik aurkitu! Neskek ez zuten gaizki hartu, hau da, ez ziren builaka hasi betiko moduan. Izan ere, denak aho zabalik geratu ziren mutil eder hura beren aldagelan sartzen ikusita. Mutil hura begiurdina eta ile marroikoa zen, Lararen eta bere eskubaloiko kideen ametsetako printze urdinaren tankeran. Atera zenean, denek aho zabalik jarraitzen zuten. Geroago, dena normaltasunera itzuli zenean, mutilari buruz hitz egiten hasi ziren. Inork ez zuen ezagutzen, baina denei inoiz ikusi zuten mutilik ederrena iruditu zitzaien. Ordulariari begiratu ziotenerako, etxera joateko ordua iritsi zitzaien eta azkar-azkar dutxatu eta etxera joan ziren.



Joxe Mari Unanue

Lara, etxera iritsi bezain laster, sofan etzan zen, presarik gabe, ostirala zelako eta hurrengo egunean ikastolarik ez zutelako. Amak esan zion igandean Lararen izebak jokatzeko zuela eskubaloiko elite mailako partidu bat, eta hura ikustera gonbidatu zuela eskubaloiko talde osoa. Lara oso pozik jarri zen, bi gauzogatik: aspaldi ez zuelako ikusi elite mailako partidurik eta bere izebak elite mailan jokatzeko zuelako eta hura ikusteko aukera izango zuelako.

Hurrengo egunean Lara ez zen lagunekin gelditu eta iganderako gauzak prestatu zituen, etxeko lanak egin eta izebari deitu zion partidua ikustera joango zela esateko. Igandea iritsi zen eta eskubaloiko talde guztia eserlekuetan eserita zegoen jokalaria noiz irtengo zain. Jokalaria irteten hasi ziren eta, Lararen izebaren txanda iritsi zenean, Lara oso harro sentitu zen eta berak horraino iritsi nahi zuela pentsatu zuen. Ezerk ez zion hori galaraziko.

Partidua amaitu zen eta Lara, Nerea eta Marta komunera joan ziren. Egin beharrekoak egin eta Lararen izebari kasu egitera joan ziren, aldageletara.

Hiru neskek whatsapp jarri zioten gurasoei, aldageletan Lararen izebarekin zeudela esanez. Gurasoek pentsatu zuten hiru neskek Lararen izebarekin itzuliko zirela etxera, eta alde egin zuten.

Lararen izeba dutxetara joan zen eta neskek, berriz, pistara irten ziren. Pistan zeudela, kiroldegiko arduradunak itxi egin zuen pistarako sarrera, neskek han zirela konturatu gabe. Neskek, orduan, saiatu ziren eserlekuen atzealdean zegoen beste atetik ateratzen; baina hura ere itxita zegoen. Ordubete igaro zen eta ez zuten irtenbiderik aurkitu. Urduri jartzen ari zirenean, argi guztiak itzali zituzten, eta larritu egin ziren. Argi txiki bat ikusi zuten izkina batean eta hara joan eta konturatu ziren ate bat zegoela han, irekita geratu zena. Handik atera eta kiroldegiko sarrerara jo zuten, pentsatuz beren gurasoak han izango zirela beren zain.

Baina hiru sorpresa aurkitu zituzten: kiroldegiko atea itxita, argiak itzalita eta beren gurasoak falta. Orduan oso-oso urduri jarri ziren eta, urduritasun horrekin, negarrez hasi ziren. Hamabost minuturen ondoren, Nereak norbait hurbiltzen ikusi zuen. Ezin izan zuen jakin nor zen, begiak bustita baitzuten malkoengatik eta horrek lauso ikustea eragiten zion:

—Begira, neskek, norbait dator! —oihukatu zuen Nereak.


—Bai, zera, Nerea! Zure imajinazioa izango da —erantzun zion Martak.

—Hori da, inor ez da etorriko gu salbatzera —esan zuen Larak.

—Ez, ez, neskek! Benetan! Sinets nazazue! —erregutu zien Nereak.

—Guk nahi bai, norbait etortzea —erantzun zion Larak.

—Hori da! Niri ostiraleko mutila izatea gustatuko litzaidake —esan zuen Martak.



Laida Urbitarte

—Baita niri ere! —erantzun zuten Larak eta Nereak, biek batera.

—Ixo! Zerbait entzun duzue? —galdetu zien Martak.

—Niri zerbait entzutea iruditu zait —erantzun zion Larak.

Orduan tok-tok hotsa entzun zuten. Hiruak beldurtu egin ziren, mamu bat zela pentsatuta. Berriz entzun eta konturatu ziren zarata atetik zetorrela. Hirurek batera atera begiratu zuten eta oihukatu zuten:

—Ostiraleko mutila da! Bera da!

Mutilak baietz egin zuen buruarekin eta barrea atera zitzaion lotsagatik. Keinuen bidez moldatu behar izan zuten ez baitzen entzuten atearen alde batetik bestera. Mutilak ezer galdetu gabe jakin zuen zer gertatzen zitzaien eta laguntzen hasi zitzaien. Keinuen bidez esan zien bulegora sartzeko, han zegoela giltza. Hori ulertzea ere kostatu zitzaien, baina ulertu eta egin zuten. Hori bai, kontu handiz ibili behar izan zuten alarmarekin; baina, Marta oso abila zenez, Marta joan eta hark hartu zuen giltza.

Halako batean, kiroldegitik ateratzea lortu zuten eta mutilarekin hitz egiten geratu ziren. Mutilak esan zien Marcos izena zuela eta berari buruz gauza gehiago ere kontatu zien. Lagunak egin ziren; batez ere, Lara eta mutil hau... oso lagunak, nobioak, egin ziren. Marcosek eskatu zion Larari ea berarekin ateratzen hasi nahi zuen eta Lararen erantzuna, dudarik gabe, baiezkoa izan zen. Marcosek esan zion lehenengo gauza hau izan zen: *Denak berdinak gara*. Larari barruraino sartu zitzaion eta mutilak, nahi gabe, muxu bat eman zion masailean. Marcosen etxera joan ziren, hark merienda eman zien eta pixka bat deskantsatzen geratu ziren, hainbeste emozioarekin nekatu egin baitziren. Ondoren, etxera eraman zituzten hiru neskak. Gurasoei dena kontatu zieten eta konpondu zuten. Marcos eta Lararen artekoa ere kontatu zieten.

Handik aurrera denak pozik bizi izan ziren, Lara Marcosekin elkartzten baitzen asteen bitan eta, hori bai, Nerea, Marta eta Lara kontu gehiagorekin ibili ziren aurrerantzean.

Naia Makazaga



Magid Boujema

Aitatxo


Aitatxo, jaiotzetik zaitut bihotzean.
Aitatxo, zaintzen nauzu gaixo nagoenean,
beti zaude hor mina hartzen dudanean,
eta kontsolatzen nauzu negar egitean.
Txantxa asko egiten dizkidazu umore ederrean.
Aholku asko eta onak ematen dizkidazu.
Nik beti izan zaitut gogoko,
zaudenean haserre ala goxo-goxo.
Nire aitatxo, nire aitatxo!
Ez nazazu sekulan txantxarik gabe utzi!
Beti txantxati nahi zaitut.
Behar zaitut, aitatxo.
Maite zaitut, aitatxo!

Ekhi Gozategi

Animaliak naturan

Txoriak hegan zeruan zehar.
Intsektuak sigi-saga lurrean barrena.
Zaldiak lasterka zelai ordekan.
Txerriak bueltaka lokatz artean.
Erleak loretik lorera polena garraiatzen.
Tximuak zintzilik zuhaitzetatik.
Arrainak igerian itsaso zabalean.
Krokodiloak ezkutuan zingira likitsetan.
Gu, gizaki eta animalio, lanean,
naturarekin harmonia betean.

Iker Rodriguez



Intza Eizagirre

Amets Iortua


Behin batean, Marina izeneko neska gazte bat bizi zen Amerikako Estatu Batuetan. Bere ama aktore famatu bat zen, aita saskibaloiko entrenatzaile famatua eta anai zaharra saskibaloiko jokalaria famatua. Marinari ez zitzaion saskibaloia asko gustatzen, baina bere anai zaharraren partidak ikustera joatea behartuta zegoen. Berari eskubaloia gustatzen zitzaion eta bere logelan sartzen zen eskubaloiko partidak ikustera. Zoritxarrez, Amerikan ez zen eskubaloia gehiegi jokatzen. Marinaren ametsa Norvegiako eskubaloi taldean sartzea zen txiki-txikitatik eta, 16 urte betetzean, hara joango zela zin egin zion bere buruari. Marinak 14 urte zituen eta gero eta gogo handiagoa zuen bere urtebetetze eguna iristeko.

Egun batean Marina Alex anaiaren saskibaloiko partida bat ikustera joan zen; baina, partida erdian, bere lagunarekin joan zen eskubaloian jolastera. Bere lagunak Laura izena zuen eta, Marina bezala, eskubaloi zalea zen. Handik pixka batera, ama ohartu zen Marina eta Laura falta zirela eta beren bila hasi zen. Berehala aurkitu zituen bi gazteak eta Marina astebete oso bat etxetik atera gabe zigortu zuen.

Handik urte batera, Alex Chicago Bulls saskibaloi talderako hartu zuten, eta orduan, gero eta gehiago behartzen zuten Marina saskibaloia ikustera.

Marinak sekretu bat gordetzen zuen: bere logelako saskibaloiko poster baten atzean ate ezkutu bat zeukan, eta bere gurasoek eta anaiak ez zekiten atea hor zegoela. Egun batean, ama logela garbitzen ari zela, posterra kendu zuen pareta garbitzeko eta han aurkitu zuen atea. Irekitzen ahalegindu zen, baina giltza behar zen atea irekitzeko. Marinaren logelako leku guztietan begiratu zuen, baina ez zuen aurkitu. Bat-batean, kaxa txiki-txiki bat aurkitu zuen saskibaloiko teknikak azaltzen zituen liburu potolo baten atzean gorderik. Amak giltza hartu zuen eta, atea ireki bezain laster, gela sekretu hori miresten pasa zituen bi minutu. Ondoren, poster eta kamiseta guztiak banan-banan begiratu zituen. Paper zati batean Marinaren ametsa zegoen jarrita, hitz hauekin: *Nahiz eta ni saskibaloian ibili, handitan, Norvegiako eskubaloi taldean nahi dut sartu. Ez nahiz ibiltzen saskibaloian nik nahi dudalako, aitak derrigortzen nauelako baizik.* Segidan, paper zati hori aitari erakustera joan zen ama; baina, orduantxe, Marina sartu zen sukaldean. Aitak papera irakurri eta Marinari builaka erantzun zion hau esanez: *Ez dizut utziko eskubaloian jokatzen, zu saskibaloien ibiliko zara zure anai zaharra bezala.* Orduan, Marina sukaldetik korrika atera eta bere gela sekretura joan zen negarrez. Hortik aurrera Marinak ez zuen eskubaloiaz hitz bat bera ere esan.

Beste urte luze bat igaro zen. Egun bat falta zen bere urtebetetze egunerako, hau da, 16 urte betetzeko; baina ez zeukan gogorik eguna iristeko, aitak ez ziolako uzten Norvegiara joaten.



Niobe Ferreira

Eguna iristean, familia osoa bildu eta jaten hasi ziren. Bi ordu luze igaro eta gero, Marinaren opariak irekitzen hasi ziren: lehenengo, bere anaiaren oparia ireki zuen; ondoren, bere izeba eta osabarena; segidan, bere lehengusuena... eta, azkenik, bere gurasoena irekitzeko garaia iritsi zenean, oparia hartu eta papera kentzen hasi zenean, gutun txiki bat zela konturatu zen. Gutuna ireki zuen eta barruan paper idatzi bat eta Norvegiara joateko hegazkin tiket bat zegoen, eta eskubaloiko ikas-taro bat egiteko inskripzioa. Marina oso pozik jarri zen eta gurasoei muxu handi bat eman zien.

Aitak hau esan zion: *Marina, barkatu hain gogorra izateagatik eta saskibaloian jokatzera derrigortzeagatik*. Marinak hau esan zion: *Aita, badakit egin didazun guztia ni saskibaloian oso ona izateko egin duzula, eta ulertzen dizut*.

Hilabete beranduago, Laurarekin batera, aireportura joan zen Norvegiarantz abiatzen zen hegazkina hartzeko. Familia agurtu eta hegazkinera joan zen.

Azkenik, Marina eta Laura Norvegiara iritsi ziren. Biek etxe bat alokatu zuten eta kiroldegirantz abiatu ziren eskubaloiko proba egiteko. Hiru ordu itxaron zuten egia jakiteko, hau da, taldean zeuden ala ez jakiteko. Segidan, gorbatadun gizon bat azaldu zen gutun handi batekin. Bi lagunek korrika gutuna ireki zuten, eta han, paper handi batean, taldean sartu zirela jartzen zuen. Bi lagunak oso-oso pozik heldu ziren beren etxera.

Horrela jarraitu zuten bi lagunek: mundialetan jokatzeko, pabiloi bete-beteak, arrakasta handia... baina garrantzitsuena zen Marina eta Lauraren familiak partidak ikustera joaten zirela.


Irati Antia

Birraitonaren gaztetako abentura

Kaixo, ni Amaia naiz eta, txikia nintzenean, nire birraitona Manuelek kontaturiko gaztetako abenturak azalduko dizkizuet.

Urteak atzera eta atzera botata, Manuelek 13 urte zituen. Oraindik oso gaztea zen eta denek bezala, bere txorakeriak egiten zituen.

Esan zidanez, lagun min bat zuen eta harekin partekatzen zituen bere abentura guztiak, anaiarekin batera. Hirurak oso ondo konpontzen ziren, gauza berak gustatzen baitzitzaizkien. Manuel oso bizkorra zen eta beti laguntzeko prest zegoen; baina, guztiek bezala, bere alde txarrak ere bazituen: leku guztietan muturrak sartzea gustatzen zitzaion.



Mikel Lizarralde

Bere anaia, berriz, oso isila eta lotsatia zen. Batzuetan hain isila zen, ez zuela bere iritzia ere besteekin partekatzen. Nire birraitonaren lagun minak, bestalde, Patxi zuen izena; hari asko gustatzen zitzaion lagunekin egotea eta Manueli bezala leku guztietan sartzea. Esaten zuenez, horrela, irtenbidea aurkituz, abentura izugarriak bizitzen omen ziren.

Orain dela urte batzuk, birraitona Manuelek, hil baino lehen, bere abenturarik gustukoena kontatu zidan, ez ahazteko esanez.

Manuelek 15 bat urte edukiko zituen. Baserri batean bizi zen ama eta anaia-ekin; aita gazterik hila baitzen. Hori zela-eta, amak bakarrik hezi behar izan zituen bi mutikoak.

Egun batean birraitona amarekin haserretu eta etxetik alde egin zuen, Patxiren etxera azalduz. Lagunaren ama harrিতuta geratu zen eta Manuelen amari dei egin zion, semea bere etxean zegoela esateko. Bi emakumeak mugikorrez hitz egiten ari ziren bitartean, Patxiren ama ohartu gabe, bi lagunek etxetik alde egin zuten.

Lehenengo egunean kobazulo batean geratu ziren lotan. Bigarren egunean, berriz, mendian galduta ibili ziren etxe moduko bat ikusi zuten arte. Hara sartzerakoan, ikusi zuten ez zegoela ez altzaririk eta ez beste ezer. Zuloak bakarrik zeuden. Zulo haien atzean zer zegoen jakin nahian, ikertzen hasi ziren. Bakoitza zulo ezberdin batetik sartu zen. Aurreraka jarraitu zuten zuloan barrena; baina Manuelek atzera egin zuen, han ezer ez zegoela pentsatuz. Patxik, berriz, aurreraka ekin zuen meategi batera iritsi zen arte. Han trenbideak bezalako zerbait ikusi zituen. Urrea eta zilarrak gain.

Nire birraitona oso arduratuta zegoen, ez baitzuen lagunaren arrastorik. Orduan, Patxi sartu zen zulo beretik sartu zen. Amaierara iritsi zen eta bera ere harrিতuta geratu zen hura ikustean. Guztia oso polita zen, baina oraindik ez zuen bere lagunaren arrastorik. Oso kezkatuta, haren bila hasi zen. Bat-batean, Manuelek Patxi ikusi zuen lurtean, odolez beteta. Ederra sustoa hartu zuena! Oso kezkatu zegoen eta bere laguna animatzen saiatu zen. Azkenean lortu zuen eta biak handik irtetea erabaki zuten... baina nondik? Oraingoan biak batera ibiltzea erabaki zuten, beste sustorik ez hartzeko. Jira eta bira ibili ondoren, oso nekatuta zeudenez, hantxe geratzea erabaki zuten atsedena hartzen.

Bitartean, Manuelen eta Patxiren gurasoak oso arduratuta zeuden haien bila. Manuelen ama negar batean zebilen, guztia bere errua zela pentsatzen zuelako. Arrazoirik gabe haserretu zela eta orain bere semea eta laguna galdu zituela esaten zuen.

Berriro ere meategira itzuliz, Manuel eta Patxi lo geratu ziren eta hurrengo goiza iritsi arte hantxe egon ziren. Hurrengo goizean soinu batzuk entzun zituzten eta, esnatu zirenean, konturatu ziren meategian pertsona batzuk lanean zebiltzala. Orduan, berengana hurbiltzea erabaki zuten. Hurbiltzen ari zirela, arraro begi-

ratzen hasi zitzaizkien langileak; izan ere, langile haiek ez baitziren pertsona arruntak, iratxoak baizik. Bi lagunek ere harrituta begiratzen zieten haiei; baina, azkenean, Manuelek hitz egiten hastea erabaki zuen. Ea nondik irten zitezkeen galdetu zien. Iratxoak hasieran ez ziren ausartzen hitz egitera; baina, halako batean, iratxo gazteenak erabaki bat hartu zuen: bidea erakustea. Patxi eta birraitona haren atzetik joan ziren eta berriro ere hasierako lekuan agertu ziren.

Iratxoari besarkada bat eta eskerrak emanez, etxetik atera ziren. Mendingo zehar zihoazela, konturatu ziren pertsona batzuk beren izenak oihukatzen ari zirela. Nondik zetozen eta nor ziren begiratzera joan ziren eta beren gurasoak zirela ohartu ziren. Hura ikustean, biak batera, Manuelen anaiarengana joan ziren korrika, gertatutakoa kontatzera.

Biak etxera iritsi zirela ospatzeko, denak elkarrekin baserrian afaritxo bat egitea erabaki zuten.

Abentura hau entzunda, gauza asko ikasi nituen eta horietatik gehien harritu ninduen hau izan zen: iratxoak benetan existitzen direla!


Laida Urbitarte

Ez egin negarrik

Ez egin negarrik
neska honengatik,
nahiz eta baden oraindik
arduratzen denik
bere arazoengatik.
Dena omen da adinagatik,
ero-haizea dabilela beroarengatik,
eta ez dela kezka seriorik;
baina galdera amaigabeak burutik,
eta haiek kontatzea dauka bere buruari debekaturik,
huseria direla-eta, barnerako utzirik,
eta hori ez ezik,
erantzunak ere badabiltza hemendik,
ba ote da beste galderarik?

Errealitateari eskua emanik,
ametsak besoetan babesturik,
oraindik ibiltzen da ume aurpegiarekin;
badu, ordea, apur bat helduen jarreratik.
Mozorro bat jantzirik,
inork ikusi ezin barruan zer duen ezkutaturik,
horrela, bere kaiolan giltzapean sarturik,
sarrailaren giltzarik
ez denean bere begi-bista ingurutik.
Bi gauza batera egin nahi, eta bakarra lortu ezinik,
zerbait handia izatearekin amestuz, baina jendeak nolakoa
den jakin barik.
Saiatu eta amore emanik,
malkoak erortzen dira damuen iturritik,
neska honen begietatik,
atsekabetuen kaiola ilunetik;
gazte garaiko arazo artean murgildurik.

Ixiar Mendizabal



Ania Amilibia

Erantzunik gabeko mila galdera

Berdinak al dira
ilusioa eta maitasuna?
Zer da maitatzea?
Eta maitatua sentitzea?
Nola dakigu benetan maite dugula?
Eta nola jakin maitatuak garela?
Nola maitatu maite ez gaituena?
Eta nola mantendu maite ditugunak?
Nola desberdindu
ilusioa eta maitasuna?
Noiz bukatzen da ilusioa?
Eta noiz hasten da maitasuna?
Milaka galdera
erantzun ezberdinen bila.
Milaka erantzun
galdera egokien bila
Baina....
Nola lotu hori guztia?
Denbora luzean zehar
lortzen da erantzuna.

Eider Peiro

Ipuin bat 30 minututan idazten

Ipuin bat 30 minututan idaztea agindu dit irakasleak. Ongi da, lasaitu egingo naiz eta goazen aurrera. Hau burutzeko, beharrezkoa zait nire gelako mahaia txukuntzea; liburuak motxilara sartu, arkatzak gorde eta ezabatzeko gomaren apurrak zaborretara bota. Orain baso bat ur hartuko dut sukaldetik eta mahai gainean inspiraziorako oinarria izango den nire landare kuttuna jarriko dut. Komunera joan eta lanari ekingo diot. Nire gelako aulki birakarian eseri, landare txikia mahaiko ezker aldean kokatu eta goazen hastera. Iratzargailuan ordu erdiko denbora jarri ostean, orri mordoxka bat eskuetan hartu eta bata bestearen gainean jarri, bolaluma eskuetan hartuz; ea bada, zer genero mota izango du ipuin honek? Misterioa, zientzia fikzioa, maitasuna...

Misterioa edo maitasuna, ez dakit. Eta biak nahasten baditugu? Hori da! Egin dezadan, bada, maitasun eta misteriozkoa; geroago ikusiko dut nola erlazionatu.

Lehendabizi, pertsonaiak eta eszena pentsatuko ditut; protagonistak Anuxka eta Xabier izango dira eta pertsonaia Pinto, Xabierren txakurra. Ongi da, hori jadanik badut... Orain, non kokatuko ditut 13 urteko lagun hauek? Mendi-buelta bat egitera joan direla esaten badut? Mmm... Ez. Hirurak (Xabierren txakurra barne) laku baten ondoan bueltatxo bat ematera joan direla gustukoago dut. Halaber, arlo horretatik joan daiteke istorioaren sarrera:

Olatuen soinuaren telefono mugikorreko tonua entzun bezain laster, pantailari begiratu eta Xabier dela ohartu da Anuxka. Mezuan mutikoak bere txakurrarekin lakuaren inguruan bueltatxo bat ematera gonbidatzen du eta, bi aldiz pentsatu baino lehen, gonbita onartu egiten du, ikastolako azterketak amaitu dituztenez, larunbat arratsaldea igarotzeko plan aparta iruditzen baitzaio.

Ondo hasi naiz! Sarrera egoki batek hasierako egoera itxuroso bat dakar. Zer egin dezaket? Istorioarekin pittin bat jarraituko dut lehendabizi.

Arratsaldeko 5ak iritsi dira eta biak laku ertzean bildu dira. Xabier oso pozik dago aspaldian ez delako Anuxkarekin bakarrik gelditu, azterketak direla, lagunaren isekak direla eta abar. Neskatoa, bestalde, pittin bat urduri dago, aspaldian zuten lagun-konfiantza hori galdu ote duten beldur.

Ongi! Oso ongi! 10 minutu pasatxo eman dizkit hau burutzeak, ene! Beno, istorioaren nondik norakoa badut, baina hasieran esan dudako misterioa non txertatuko dut? Protagonistek zerbait galtzea, gurasoekin inkomunikatuta gelditzea, altxor bat aurkitzeko pausuak edo aztarnak jabetzea... Ez zaizkit asko gustatzen ideia hauek; mahaiaren ezkerrean dagoen landareari begiratu ostean inspirazio bila, honek erantzuna eman dit: txakurra bat-batean desagertu egingo da, protagonistak izutuz:

Lakuaren pareko egurrezko banku batean lasai-lasai izozki bat jaten daudela, Anuxkak Pinto txakurraren falta sumatu du eta honela esan dio Xabierri:

—Xabier! Non dago Pinto? Ez dut ikusi izozkia erosiz geroztik.

—Egia da! Nik ezta ere! Pinto! Pinto! Non hago? Ez du zaunkarik egiten. Ai, ene, Anuxka! Non ote dago? Galdu egin dugu!

—Lasai, goazen bilatzera. Ikusi han! Bere oinen aztarnak dira eta ile zuri eta leunaren pelusilla dago!

—Begira! Hango zuhaitzaren azpian zerbait gorria dago! —biak ziztu batean hurbiltzen dira—. Hara! Pinttoren korrea da, baina, hemen ez dago bere arrastorik. Non ote dago?

Primeran! 22. minutuan nago eta misteriozko punttua eman diot istorioari. Orain, nola sartuko dut maitasunezkoa? Protagonisten artean sentimendu handi

baten ageria egitea, espero den bukaera bat da eta, gainera, ez du misterioaren soluziorekin bat egiten. Maitasuna falta den pertsonaian sartzen badut? Horrela, txakurrak ere protagonismo momentu bat izango du. Hori da! Ideia bikaina! Pinttoren sentimendu ezkutatuak azaleratuko ditut liburua modu ezberdin batean bukatu dadin:

Denbora luzez, pisten ideiak lotuz eta arrastoei jarraitu ondoren, Pintto aurkitu dute, lakuaren beste aldean arroka batzuen gainean, txakur eme batekin etzanda.

—Ai, ene! Hori despistea! Jakin beharko nuke honen berri; azken boladan askotan huts egiten du —dio Xabierrek.

—Uff! Hori pisua kendu dudana gainetik! Eskerrak ondo dagoen, asko pozten naiz —erantzuten du Anuxkak.

Orduantxe, hirurak etxerantz joaten dira eta, Anuxka agurtu ostean, Pintto eta Xabier etxera iristen dira, eta mutilak familiari gertatutakoa azaldu die.

26 minutu! Lortu dezaket! Goazen, bada, azkeneko txanparekin. Ea zer gertatzen den pertsonaiekin:

3 hilabete beranduago:

—Anuxka! Pintto aita egin da! Etorri etxera sei txakurkumeak ezagutzera!

—Bai? Hori poza! Oraintxe lasterka noa.

Etxera iristean, Xabierren familia al baitariarengana joanda dago botika bila.

Pintto eta Lana sei kumeak inguratzen ari dira, bien begitxoak dirdiraz beteak dituztela...

Bitartean, 13 urteko aspaldiko lagunak sofán eserita daude:

—Asko pozten naiz memento hau zurekin partekatzeagatik, Anuxka. Behar dudan pertsona zara.

—Beti gogoratuko naiz hitz hauetaz. Gogoratzen al zara lakuan geunden egun hartaz?

Gu aldatu egin gintuen txakurraren albisteak, eta orain memento hori errepikatzen ari da.

—Egia da. Baina, oraingoan, zuk nahi baduzu, gu geu izango gara sekretu barneko protagonistak.

Amaia Izagirre



Maialen Aramendi

Munduaren bi aldeak

Zerua itsasoa bezain urdin zegoen aste hartan. Herrian inoiz baino soinu gehiago entzuten zen, inoiz baino alaiagoa zegoen. Jende pilo bat ikusten zen kaleetan eta denak oso alai zeudela nabaria zen, egun berezi bat izango balitz bezala.

Egia zen, bai, aste hura oso aste berezia zen, herritarrentzat gutxienez; baina niretzat, ez; niretzat oso aste tristea eta beldurgarria zen, egun bat konkretuki. Nire aitak tronua pasa behar zidan. Erregina bilakatuko nintzen handik egun gutxitara.

Egun hura pasa zen, ordea, eta orain hemen nago ni, Gadea, Brenda ahizparekin, bientzat oso arraroa den hiri batean: inguruan jende arraroa, arropa arraroak soinean dituztenak, eraikin arraroak... dena da arraroa, gure herriarekin alderatuta behintzat. Emakumeek galtzak dituzte jantzita, galtza oso estuak, eta baita soinekoak ere; baina ez gure herrialdean erabiltzen ditugun soineko luze eta bolumendunak, baizik-eta laburrak. Eta ez dut gaztelu bat bera ere ikusten, ezta etxolarik ere. Eraikin denak oso altuak dira eta niri ezezagunak egiten zaizkidan materialez eginak daude. Gai hau alde batera utzita, uste dut, lehenago edo beranduago, hona nola iritsi garen azaldu beharko dizuedala; beraz, lehenbailehen egitea izango da onena.

Orain dela hiru hilabete hasi zen dena. Emakume bat etorri zen ni, aita eta ahizpa Brenda bizi ginen gaztelura. Ama ez, izan ere, Brenda jaio zenean hil baitzen.

Emakumeak aitarekin hitz egin nahi zuen. Ez zuen itxura onik. Ez nintzen harekin fidatzen, izan ere, haren begietan zerbait ikusten nuen... Nolanahi ere, aita eta emakumea bilera-gelan sartu ziren eta han egon ziren denbora luzez. Zer esaten zuten entzuten ahalegindu nintzen, baina alferrik; beraz, nire gelara igo nintzen. Handik ordu erdira aitak atea jo zidan. Sartzeko esan nion eta orduan ikusi nuen bere aurpegia: inoiz baino zuriago zegoen, nabaria zen oso urduri zegoela. Aitak esan zidan emakumeak agindu ziola handik hiru hilabetetara, hirugarren hilabeteko lehenengo egunean, nire koroatzea ospatu behar zela, aitak tronua utzi eta niri pasa behar zidala. Halaxe ez bagenuen egiten, egun batetik bestera, Brenda gure ondotik desagertuko zela mehatxatu omen zuen emakumeak.

Baina nik ez nuen koroatu nahi. Sekretu bat gordetzen nuen, inork ez zekiena; ez ahizpak, ez aitak... inork ez. Orain dela lau-bat hilabete mutil bat ezagutu nuen eta berarekin berriketan pasa nuen arratsalde osoa. Arraroa zen, ez zen gure herritarrak bezalako, baina modu onean zen arraroa: mutil hura berezia zen, misterio-tsua. Esan zidanez, ez zen hemengoa, baina ez zidan beste daturik eman; izena bakarrik: Daniel Allard. Tamalez, ez nuen geroztik ikusi.

Koroatzen banintzen, ez nuen ezer egiteko aukerarik izango, gure herriko arau bat baita, erregina zarenean, ezin duzula inoiz herritik atera. Beraz, plan bat egin

nuen. Hala ere, Brenda nirekin eramán beharra neukan dena ondo irten zedin. Plana martxan jartzeko ordua zen. Inoiz baino lehenago esnatu nintzen egun hartan, gauza asko nituen—eta egiteko. Arratsaldean ospatuko zen festarako soinekoa jantzi nuen, soineko gorri luze bat. Nire jostunak denbora asko pasa zuen momentu hartarako soinekoa josten, izan ere, perfektua izan behar zuen nire koroatzearako; eta bai, halaxe zen. Ondoren, Brenda esnatzera joan nintzen. Berak ez zuen ezeren berri; baina, azkenean, nirekin etortzeko konbentzitu nuen, ondoren dena ondo argituko niola esanez. Eguna argitu baino lehen abiatu behar genuen; bakoitzak beharrezkoak hartu eta iluntasunean barrena ibili ginen. Denbora luzea egin genuen oinez eta, eguna argitu baino lehen, herritik oso urrun ginen.

Azkenik, gure ihesaren eguneko eguerdian iritsi gara hona, hiri arrarora. Orain dela hamar minutu eskas. Jende asko dabil kalean; beraz, hango bati hiriaren berri galdetzea erabaki dugu. Gure parean emakume bat dago, egunkaria irakurtzen. Harengana hurbildu gara.

—Barkatu, berriak gara hirian... Esango zeniguke gutxi gorabehera non gauden, gu bertan kokatzeko, mesedez? —galdetu dio Brendak eskuak azkar mugituz.

—Bai, noski. Nabaria da ez zaretela hemen ingurukoak. Arropa horiek orain dela seiehun bat urte pasa ziren modaz! —esan du emakumeak nagusitasun tonuan.

—Bueno, guretzat zuen arropak dira arraroak... baina, tira, ez dugu haserretzeko asmorik —esan diot, Brendak zerbait txarra bota aurretik.

—Barkaidazue... Tira, hiri honek Augusta izena du. Munduaren ezker aldean dago. Jakina, pentsatzen dut badakizuela zer desberdintasun dagoen munduaren ezker aldearen eta eskuinaldearen artean —esan du bere hitzez oso seguru. Egia esanda, ez dakit zertaz hitz egiten ari den.

—Barkatu, baina ez dakit zertaz hitz egiten ari zaren. Guk uste genuen munduan denak berdinak ginela: herrialde bakoitzak bere erregeak ditu, herritarrek ezin dute handik atera, hurrengo urteetan errege-erreginak izango direnak baka-riki atera daitezke... betiko kontuak —esan diot tonu utziarekin.

—Orain ulertzen dut: arropak, zuen ezjakintasuna... Gai hau kafetxo batekin hitz egin beharra dago. Ez bazaizue axola, igo gaitezen nire etxe apalera. Zuei, jakina, txiki samarra irudituko zaizue, non bizi zareten jakinda —esaten du, atzean dugun atea seinalatuz.

Emakumearen etxera sartzerakoan, gure gaztelutik oso desberdina dela antzematen dut, eta esango nuke Brenda ere gauza bera ari dela pentsatzen; hori erakusten du bere aurpegiak. Emakumeak kafea eskaintzen digu eta biok baietz esaten dugu. Emakumea munduaren bi aldeena argitzen hasi zaigu. Esaten duenez, munduaren ezker aldean bizi direnak orainaldian bizi dira berentzat; baina gure-

tzat, aldiz, etorkizunean bizi dira. 2016. urtean omen daude; gu, aldiz, munduaren eskuinaldean, oraindik Erdi Aroan gaude, 1300. urte inguruan (ez dugu urteen kontu zehatza eramaten). Galderen txanda iritsi eta nik, orduan, gu hona horren azkar zergatik iritsi garen galdetu diot; berak erantzun du seguruenik gure herria bi aldean mugan kokatzen delako izango dela. Orduan, Brendak beste galdera bat gehitu du: ea zergatik ezkerraldekoek honen berri baduten eta guk, berriz, eskuinaldekoek, inoiz ez dugun jakin. Galdera oso erraza izan da erantzuten: ezkerraldekoak modernoagoak dira, hau da, urte gehiago izan dituzte gauzak asmatzeko eta gauzen berri izateko; aldiz, guk oraindik ez dugu horretarako denbora eta tresna egokirik.

Orain pentsatzen jarrita, emakumeak ez digu bere izena esan.

—Barkatu. Zein izenez deituko dizugu?.

—Ai ene! Hau burua nirea... Barkaidazue. Nire izena Francisca Allard da.

Nire burua jadanik paranoiak egiten ari da: Allard, abizen hori nire buruan behin eta berriz errepikatu da azken hilabete hauetan, hasieran Daniel izena duelarik. Ezin izan diot eutsi, eta galdera egin diot:

—Eta etxe honetan bakarrik bizi zara?

—Batuetan bai, besteetan ez. Izan ere, gizona aspaldi hil zen, sendaezina zen gaixotasun batez, eta nire semea egun batuetan hemen izaten da eta beste batuetan, aldiz, ez dakit ezta nora joaten den ere —esaten du, eta nik begirada triste bat duela antzematen diot.

—Eta nola izena du, ba, zure semeak? —galdetu dio Brendak arrapalada batean.

—Nire semearen izena Da...

Ez diot ezta bukatzeko denborarik ere eman:

—Daniel Allard —esan dut bien harridurarako.

—Ezagutzen al duzu, ba? —esan dute biek batera.

—Bai, tira... Egun batean munduaren eskuinaldera —oraindik arraroa egiten zait hau esatea— etorri zen. Eta nirekin topo egin zuen. Arratsalde bikaina pasa genuen, baina ez zidan gauza askorik kontatu, bere izena eta hangoa ez zela besterik ez. Oso mutil misteriotsua da zure semea —hitz egiten ari naizelarik, tonu esperantzagarri baina tristean ari naizela ohartu naiz, maiteminduta egongo banintz bezala.

—Hara! Orain, behintzat, badakit non egoten den nirekin ez dagoenean

Eta, orduan bertan, Franciscaren etxeko atea irekitzen da. Sartzen ari denak etxe honetako giltzak dauzka, beraz... eta orduan ikusten dut Daniel, bere irribarre

handiarekin —ile marroia, begi grisak...—. Azken aldian ikusi nuen bezala dago, ez da aldatu. Gure begiak gurutzatzen direnean, begirada aldatzen zaio eta dena aldatzen da biontzat.

Jadanik hiru egun pasa dira ahizpa eta biak hona iritsi ginenetik eta Daniel aurkitu nuenetik. Daniel eta nire artean gauzak oso ondo doaz. Egunen batean, azkenik erregina izaten banaiz, bera izango da erregea. Brenda munduaren alde hau esploratzera irteten da egunero, eta beti ditu gauza berriak kontatzeko. Danielen ama, Francisca, kezkatuta dago gure aitak ez dakielako gu non gauden, eta behin eta berriz errepikatzen dit aitarekin era batera edo bestera komunikatzeko. Beraz, azkenean, kalera atera naiz uso bat erostera, hori baita Erdi Aroan komunikatzeko erabiltzen dugun tresna. Nahiko eraginkorra izan ohi da. Eta, Brenda eta bion izenean, aitarentzat eskutitza idazten hasi naiz:

Aitatxo maitea:

Lehenik eta behin, barkaiguzu egin genuenagatik egun hartan. Asko sentitzen dugu zuri gure asmoak kontatu ez izana, baina bagenituen gure arrazoiak egin genuena egiteko. Brendaren errua baina gehiago, nirea izan da. Arratsalde batean mutil bat ezagutu nuen eta zerbait aldatu zen nire barruan, baina ez nuen orduz geroztik ikusi eta, gainera, gure herrikoa ez zela esan zidan. Erregina banintz, ezingo nuen haren bilaketan atera, goiz hartan egin genuen bezala.

Badakit zuk oso erraz sinesten dituzula jendeak kontatzen dizkizun gauzak, eta ulertzen dugu zergatik zaren horrelakoa. Gu edozeren gainetik zaindu nahi gaituzu; ez duzu nahi guk ama bezala bukatzea eta, beraz, emakumeak zuk tronua pasatzen ez bazenidan Brenda gure ondotik desagertuko zela esan zizunean, ezin zenuen arrisku hori jasan. Benetan sentitzen dugu, izan ere, oraintxe pentsatzen jarrita, seguruenik biok desagertu garela betiko pentsatuko duzu.

Baina badakit emakume hark zergatik kontatu zizun hori. Zu erregerik onena zarela, eta herria oso ondo kudeatzen duzulako. Aldiz, ni banengo tronuan, askoz errazagoa izango zen emakume harentzat boterea bereganatzea.

Azkenik, hemen oso ondo gaudela esan nahi dizugu. Danielekin bildu naiz, eta haren amak etxean hartu gaitu, gainera. Brenda asko ari da ikasten eta gauza asko ditugu zuri kontatzeko mundu honi buruz. Beraz, egunen batean etorri nahi baduzu, hemen bidaltzen dizudan tramankuluaren botoia sakatu besterik ez duzu, eta norbait joango zaitzu bila gurekin elkar zaitzen.

Besterik gabe laster elkar ikusiko dugulakoan, bi muxu.

Galdea eta Brenda.

Nora Lizarralde

Ongi etorri, seme?

Urduri zegoen, ulertzekoa zena. Bat ez da aita egunero bihurtzen. Hainbat hilabete izan zituen Gorkak bere bizitza guztia denbora gutxira hankaz gora ikusiko zuela barneratzeko; zehazki, zazpi hilabete eta hogeita bat egun, notizia jaso zuenetik. Baina oraindik ez zekien nola egingo zion aurre guzti horri. Bere semeari, ordea, ez zitzaion axola bere aita prest ote zen: ateratzeko unea iritsi zela erabaki zuen. Bai, hainbeste beldurtzen zuen momentua, bere amesgaiztoen protagonista izan zena luzaro horretan, han zen, bere begien aurrean.

Baina has gaitezen behar den bezala, hasieratik.

Nahaspila guzti hau bikote batekin hasi zen. Gorka eta Leire. Berebiziko amodiozko istorio bat eduki zutela, elkar maite zutela eta betirako batera egongo zirela esango nizuke, irakurleak beti izaten dituelako gustuko horrelako kontakizun irrealak. Baina txikitatik irakatsi didate gezurrak hankak motzak dituela; beraz, hobe izango da hasiera batetik benetan gertatutakoa azaltzea.

Gorka. 30 urte inguru. Lan bat, koadrila bat, andregai bat... Ez zuen beste ezeren beharrik ikusten. Gustura zegoen horrela, Leirerekin edukitzen zituen gorabehereri garrantzi handirik eman gabe. Bai, Leirek akatsak zituen, guztiok bezala, eta ez zion sentiarazten pelikuletan hainbeste aipatzen den maitasun itsu eta infinitu hori; baina zergatik bilatu ume txikienezako ipuin faltsu bat iruditzen zitzaion sentsazio hori, honela nahikoa bazuen? *Oondo* zegoen berarekin. *Oondo*, bai. *OONDO*. Badakizu zeri buruz ari naizen: adostasuna-desadostasuna adierazteko hitz hori. Ez da *ondo* arrunt bat, modu ez oso sinesgarri batean esaten dugun *ondo* hori... Gorka *Oondo* zegoen; hau da, erlazioak ez zuen guztiz konbentzitzen, baina konformatu egiten zen. Zergatik? Beti horrela izan zelako.

Ez zuen aldaketarik espero. Ez, barkatu, ez zuen aldaketarik nahi. Aldaketen beldurraren sintoma nagusiak betetzen zituen. Esanguratsuen: ezezagunarekiko beldurra. Bere bizitza guztia herri berean, lagun eta neskalagun berarekin pasa zuen, bere gurasoen pausoak jarraituz, haien ikasketa berak eginez... Mutila ez zen asko arriskatzen... Horregatik, gau hartan Leirek berria eman zionean... Mirarrietan sinisten hasi naiz, bestela ez dagoelako inolako erarik zutik nola jarraitu zuen azaltzeko, lurrera zorabiatuta ziplo erori beharrean.

—Gorka? Gorka, ondo al zaude?

—Bai, bai... Ez duzu imajinatu ere egiten zer nolako ilusioa egiten didan... Nekea izango da...

—Zenbat aldiz esan dizut lo gutxiegi egiten duzula? Gaur goiz joango gara ohera. Ea, goazen etxera.

—Ondo da, baina aurrena komunera noa momentutxo bat, maite...

Ez zegoen ondo. Psicotiko baten moduan taberna hartako gizonezkoen komunean giltzapetu zen, eta biraka hasi zen, lurrean markak uzteko indar eta abiadura nahikoan.

—Haurdun! Haurdun... Nola? Txotxolo hori, zertako egiten duzu galdera hori? Badakit erantzuna... Eta zer egingo dut nik orain? Haur bat gehiegizko erantzukizuna da niretzat.

Hainbat pertsona komuneko ateari joka entzuten ziren, nahiko haserre, baina Gorkari bost axola.

—Ezin dut Leire utzi. Nire akatsen ardura hartu behar dut, bai... Ai, ama...

Hamar arte zenbatu eta iturriko urpean bi eskuak ipini zituen. Hainbat segundo igaro zituen hari begira, inuzente moduan. Ur txorrotak bi eskuak freskatzen zizkion, behar zuelako, nahi zuelako. Behar hori agortzean iturria itxi eta listo; besterik ez zuen egin behar. Betirako irekita eduki zezakeen, edo betirako itxita, eta ez zen ezer gertatuko. Nahi zuena egin lezake iturriarekin, bere menpe zegoe-lako. Guztia hain erraza izango balitz...

Aurpegia freskatu zuen bustirik zituen eskuekin, eta komunetik eta tabernatik alde egitea erabaki zuen. Jasotako informazio guztia ohean hobeto prozesatuko zuela pentsatu zuen; beraz, bere semearen ama izango zenarekin bueltatu zen etxera.

Egunak aurrera joan ahala, geroz eta gehiago nabaritzen zuen ezinegona; ezin zuen gaia burutik kendu. Asteak pasa zituen bere hodei hartan galdurik, eta ezinezkoa iruditzen zitzaion mundu errealerara berriro jaistea. Ez zekien nola. Aitatasunari buruzko liburuak irakurtzen hasi zen, baina ez zen laguntza handia izan. Ezta Youtuben ikusitako tutorialak ere.

Baina benetan kezkatzen zuena ez zen hori, haurrak bere eguneroko bizitzan edukiko zuen oihartzuna baizik. Egunetik egunera gutxiago egiten zuen lo, eta okerrena behin eta berriz errepikatzen zen amesgaiztoa zen.

Goizeko zazpiak dira, esnatzeko ordua. Gosaldu, dutxatu, jantzi. Eguneroko errutina. Lanera doa Gorka, alai eta zoriontsu. Baina, hara! Etxetik irtetera doanean, ate parean ume txiki bat aurkitzen du, otar batean.

—Nork utzi zaitu hemen bakarrik, txikitxo?

Etxean sartzen da haurrarekin, eta egongelan uzten du Leireren bila hasten den bitartean. Negarrez ari da txikia, eta Leire ez du inon aurkitzen.

—Ba zutaz arduratuko naiz.

Edateko, esnea ematea bururatu zaio, agian horrela isilaraztea lortuko du. Besoetan hartu eta, elikatzen doan neurrian, pisu gero eta handiagoa nabaritzen du Gorkak besoen gainean. Haluzinazioak izango dira. Esnea ez da bukatzen, eta ezta umearen gosea ere. Haurra hazten ari da? Ea, Gorka, esna zaitetz behingoz! Ezinezkoa da. Txikia jada ez da hain txikia. Gorkak ezin du haren pisuarekin eta lurrean utzi behar izan du, aho zabalik begiratzen duen bitartean. Hazten ja-rraitzen du, eta gose da, esnea baino elikagarriagoa den zer-baiten gose. Teilatua jotzera iritsi da bere buru handiarekin. Gorka hartu du bere eskuetako batean eta ñam! patata frijitu ziztrin bat besterik ez balitz bezala, ahoan sartu eta jan egin du. Haurraren eztarritik behera sabeleraino jaisten ikusten du Gorkak bere burua. Ikusteko gauza desatsegina, benetan. Orduantxe esnatzen da Gorka, arnasestuka, goizero, infernuko ume horrek etxe osoa hozka bakar batez jan baino lehenxeago.

Ez naiz psikologoa, baina metafora edota mezu inplizitu bat bezala hartu genezake hori. Haurrak Gorka jaten du, bizitza errealean hipotetikoki Gorka jango edo suntsituko duen bezala.

Antza denez, haurrari ez zioten bazkaltzeko eman (eguneko txistea, ez da beharrezkoa barre egitea). Bikoteak, ordea, haurdunaldiko azken hilabeteetan asko eta ondo bazkaltzen zuen astebururo; jatetxez jatetxe etxetik kanpo bazkaltzera joaten ziren.

Eta berriro ere hasierako zatira iristen gara. Han zeuden biak, jatetxearen izena larriz idatzirik zuen kartelaren pean: SAN MARTIN. Ederra eguna erabaki zuten hara bazkaltzera joateko... Orioko Goiko Kaletik gora, San Martin baseliza ondoan... Mendi puntan!

Gorka, zer egin jakin gabe, Leirek marru eta keinuen bitartez zer esaten zion deszifratu nahian zebilen:

—Kotxea!

Hori da, kotxea hartu behar zuen. Neskari lagundu eta biak ibilgailuan ziztu bizian ospitalerantz abiatu ziren. Horiak izango ziren mutilaren azkeneko 'askatasun momentuak', eta ezin izan zuen ezta bazkaldu ere!

Erditzeko momentuan beharko zituen gauzen lista mentala egin zuen, burua ez galtzeko: mugikorra, bai... Eta listo? Ez zen zaila izan. *Errepidean zentratu zaitetz, Gorka. Falta zaizun gauza bakarra, gainera, istripu bat edukitzea izango litzateke. Orain eskuinera, lasai lasai!*

Xehetasun gehiagorekin azalduko nizueke egoera, baina ez dago ezer kon-tatzeko... Ospitalera iritsi eta dena oso azkar gertatu zen, baina ezer interesgarririk ez. Erditzeko momentua iritsi zen arte.

—Bultza! Bultza, Leire, Bultza!

—Hori da! Oso ondo ari zara! Jarraitu!



Igor Atorrasagasti

Gorka eszena bere mugikorreko pantailatik ikusten ari zen, momentua betikotzen zuen bitartean. Nahiz eta ez izan bere bizitzako gertaerarik gogokoena, ez zuen inoiz ahaztu nahi. Ziur eduki ez duela ahaztuko. Ez zuen inoiz gustuko izan odola ikustea; baina han zegoen, txapeldun bat bezala. Hori bai, hitz asko esan gabe, tente jarraitzeko behar zuen indarrak ahotik ihes egin ez ziezaion. Bere neska psikologikoki animatzen zuen:

—Ea, ba, Leire! Gure semea jaiotzeko ordua da —xuxurlatu zuen.

—Burua ikusten dut! Hemen dago!

—Azken esfortzua, Leire!

Eta han zegoen, hainbeste buruko min eta amesgaizto ekarri zituen haurra.

Ongi etorri!

Itxaron segundo bat...

Gorkak grabatzeari utzi zion. Agian, pantailan gaizki ikusten zen, pixelen kontu horrengatik. *Bere* semearengana hurreratu zen eta... ez zen ilusio optiko bat... Umea beltza zen!

—Leireeee! Hau ez da nire semea!

Ainhoa Bontigui

Kontatutako egunak

Denbora. Inoren eskuetan ez dagoen gauzetako bat da. Aurrera doa, eta ezinezkoa da hura geratzea. Bere joanak marka izugarriak uzten ditu edonorengan. Ez da inoren betebeharra honi aurre egitea, argi dagoelako galtzen aterako dela. Baina esandako guztia alferrik izango da beti berenari eutsi nahi dioten horientzat.

Neskatoaren aitonak beti esan ohi zion

—Denbora oso baliotsua da. Eta badira hau eragiten duten pertsonak. Nire betebeharra da hau zaintzea eta ondoren zurea izango da. Hala izan baita antzina-antzinatik geure familian.

Bere aitonak esan bezala, agortu zitzaion denbora eta, hil zenean, berari utzi zion ardura. Beragandik lortu zuen herentzia guztia erloju zahar bat eta bere eskuz idatzitako gutun bat izan ziren. Behin eta berriro irakurri ondoren, neskatoak ulertu gabe jarraitzen zuen. Honela zioen eskutitzak:

Hau irakurtzen ari baldin bazara, seguru aski ez naiz zeure mundu berean aurkitzen. Sentitzen dut. Badakit eskatzen dizudana ardura handia dela. Baina, dakizun bezala, zeu zara nire ondorengo bakarra. Zeure gurasoak auto istripu hartan hil ondoren, nire esku geratu zinen. Besterik ez geneukan eta orain ni ere ez naukazu. Baina zuk ez nauzu behar aurrera jarraitzeko. Bizitzan oztopo askorekin topatuko zara eta ni ez naiz bertan egongo zu laguntzeko. Baina badakit zerk lagundu ahal dizun. Bi ilargi bete barru joan zaitez Orioko elizara eta han topatzen duzun pertsonari erakutsi iezaiozu zure eskuetan utziko dudan erlojua. Ez zait denbora askorik geratzen, eta nire azken minutuak zuri eskutitz hau idazteko erabiliko ditut. Eta gogoratu: berdin dio ihes egiten saiatu ala ez. Beti egongo dira zure ondoan, ez zaituzte inoiz bertan behera utziko. Ez duzu beren beldur eduki behar, berekin elkarbizitzen ikasi behar duzu.

Aitonaren hitzak azken aldiz irakurri ondoren, lotara joan zen gaztea. Pasa ziren hainbat egun bere aitona heriotzatik eta ez zekien zeinekin hitz egin zezakeen gertatutakoaren inguruan. Bere familia bakarra galdu berri zuen. Bazekien herriko jendeak bere aitona burutik jota zegoela uste zuela eta bere lagunak ez zirela salbuespen bat izango. Beraz, zeinekin hitz egin zezakeen pentsatzen zuen bitartean, zeruari begirada bat bota zion ilargi betea ikusiz. Egun gutxi batzuk geratzen ziren bigarren ilargi beterako eta ordurako zerbait gehiago ulertuko zuelako esperantza zeukan. Momentu hartan bertan kalean bikote baten eztabaida entzun zuen, Leioha itxi eta ohera itzultzea erabaki zuen.

Gau hark luze jo zuenez neskatoarentzat, aitona erlojuarekin jolasean hasi zen. Urre koloreko katedun erloju zahar horietako bat zen. Alboan bi botoirekin: bat ordua atzeratu nahiz aurreratzeko, eta bestea ezezaguna berarentzat. Edonork egingo zuen bezala, botoiari kalkatu zion. Baina ez zen ezer gertatu, bazirudien ez zuela ongi egiten. Botoiari eman ondoren, erlojua apur bat aurreratua zegoela iruditu zitzaion eta atzeratu egin zuen.

Momentu hartan bertan zerbait arraroa gertatu zela iruditu zitzaion. Kalean berriro ere bikote haren eztabaida entzun zuenez, gehiago ez entzuteko, lotara joan zen.

Adorez bete zen eskutitzean jartzen zuen lekura joateko, bere aitona esandako momentua iritsi zela eta. Gaueko hamabiak laurden gutxi ziren eta ordurako han zen neskatoa. Marruka hasteko ordua ez zenez, elizaren inguruan buelta bat ematea pentsatu zuen, ea norbait zegoen han, baina inor ez zen ageri. Dena ilun zegoen eta iluntasun haren erdian zegoen bera ilargi betearen azpian. Bat-batean elizako kanpaiak jotzen hasi ziren neskatoari gaueko hamabiak zirela gogoratuz. Arreta eman zion soinu baxu bat ateratzen zen nonbaitetik, baina ez zekien nondik seguru. Berdin zion nora begiratu: aurrera, atzera, alboetara... inor ez zen ageri. Soinua nondik zetorren asmatu nahian zebilela, elizako ateak ireki ziren apurka-apurka eta handik argi txiki bat atera zen. Argiari segika hasi zen, fraide itxurako pertsona batekin topatu arte.

Neskatoa apur bat ikaratuta zegoen eta, zer egin zezakeen pentsatzen zuen bitartean, bere aitona eta haren eskutitza etorri zitzaizkion burura. Orduan gogoratu zituen aitonaren hitzak: *Bi ilargi bete barru joan zaitez Orioko elizara eta bertan topatzen duzun pertsonari erakutsi iezaiozu zure eskuetan utziko dudan erlojua*. Baina fraidea ote zen neskatoaren aitona aipatu zuen pertsona? Berari erakutsi behar al zion erloju hura? Edo dena adarjotze hutsa ote zen?

Bere buruari galderak egiteari utzi eta sotanaz jantzitako pertsona misteriotsu hari jarraitzea erabaki zuen. Eliza barruan zeuden biak; baina, dena oso ilun zegoenez, ez zekien zein tokitan zehazki. Bat-batean, argi guztiak piztu ziren, neska erdi itsu utziz. Inork ez zuen ezer esaten, apur bat deserosoa eginez momentu hura. Gauza asko galdetu nahi zizkion pertsona hari, baina ez zen ausartzen. Pare bat aldiz arnasa sakon hartu ostean, bere ahotik hainbat hitz ateratzen hasi ziren:

—Zer ari da gertatzen? Nora naramazu? Nor zara?

Baina gizonak aurrera jarraitzen zuen neskaren begietara erreparatu ere egin gabe. Oraindik ez zion aurpegia ere ikusi eta, hori gutxi balitz, ez zuen haren erantzunik lortzen. Horregatik asko haserretu zen neska. Baina, iskanbila bat sortzera zihoala, beti itxita egon ohi zen elizako ate bat ireki zuen fraideak eskuan zeukan giltza batekin. Berriz ere galderak egiten hasi zitzaion neskatoa:

—Nora naramazu? Zein dira zure asmoak?

—A, zer zalaparta ateratzen duen berorrek! Ez al du berorrek ikusten oso berandu dela ordu hauetan marruka hasteko? Apur bat itxaroten badu, dena azalduko diot.

Hori esan zuenetik neskatoak ez zuen hitz bakar bat ere esan. Baina ez ikaraturik zegoelako. Ahots hura oso ezaguna egin zitzaiolako baizik.

Denbora apur bat pasa ondoren, bulego zahar baten antza zeukan gela batean zegoela ohartu zen. Gizonak, eskuekin keinu eginez, esertzera gonbidatu zuen eta hizketan hasi ziren:

—Galde iezaidazu nahi duzuna. Orain inork ez baikaitu entzungo.

—Lehen ez al geunden bakarrik?

—Orain ulertzen dut zergatik etorri zaren. Badirudi oraindik ez zarela gai berak ikusteko. Ez al dizu ezer kontatu zure aitona, Gorentasunak? Eta non da bera?

—Zergatik horren formal? Gainera, badira aste batzuk nire aitona hil zela. Baina ez dirudi joan denik. Galdera asko dauzkat buruan eta inork ezin dit erantzunik eman. Inork, zuk izan ezik. Aitona eskutitz hau utzi zuen nire eskuetan, zuri emateko erloju batekin batera. Zer esan nahi duen zuk argituko didazulako esperantzarekin etorri naiz.

Hori esanda, eskutitza eman zion eta gizona irakurtzen hasi zen.

—Badirudi niri tokatzen zaidala zuri dena azaltzea. Lasai har ezazu, denbora apur bat hartuko baitit dena azaltzeak —hori esan eta neskatoaren aurrean eseri zen aurpegia txanoak ezkutatzen ziola—. Zeure aitona, Gorentasuna, inoiz bizi izan den denbora zaindaririk onena izan zen. Inoiz ez zuen porrot egin. Eta zure esku utzi baldin badu ardura, ez dut uste hanka sartuko duzunik.

—Zer da *denbora zaindari* izatea?

—Dena bere momentuan. Denbora zaindari esan ohi zaie erloju baliotsu hori zaintzen dutenei. Dena antzina hasi zen. Zure aitona jaio ere egin ez zenean. Gizon bati denbora kontatzea bururatu zitzaion eta berari esker sortu zen. Denbora sortzeagatik, jainkoek zigortu egin zuten eta hilezkortasuna eman zioten, horrela bere bizitza guztia denbora kontatzen pasatu beharko zuelakoan jainkoentzat, haitzulo batean, handik irten gabe. Egun batean, emakume bat, bere ohiko lanak egiten ari zen bitartean, gosetea zela-eta apur bat urrundu zen herritik janari bila eta haitzulo horrekin topo egin zuen. Han bizi zen gizonaz maitemindu zen eta gizona ere bai emakumeaz. Baina jainkoek ipinitako zigorra zela-eta gi-zonak ezin zuen emakumearekin alde egin. Emakume hark ez zuen onartu nahi eta denbora bere kasa kontatzeko gai zen makina bat asmatu zuen. Horrela, jainkoek zenbatgarren zenbakian zihoan galdetzen zioten bakoitzean, kontatu gabe erantzun ahal izango zion. Baina garai haietan, jainkoez gain, baziren beste izaki batzuk eta, gertatutako guztiaz ohartutakoan, berek ere botere horren jabe izan nahi zuten. Horretarako, emakumea bahitu zuten, horrela makina miresgarri horren ordezkatu ahal izateko. Baina izaki haiek ez ziren inozoak eta, nahi zutena lortutakoan, ez zuten emakumea aske utziko. Hori jakitean, emakumeak bere buruaz beste egin zuen, horrela ez baitziren jabetuko ez bere arimaz eta ez makinaz ere. Gizona, gertatutakoaz jabetu zenean, atsekabez, bere buruaz beste egiten saiatu zen, baina jainkoen zigorra zela-eta, ez zuen lortu. Hori gutxi balitz bezala, makina horrekin bizi beharko zuen betiko eta ezin izango zuen emakumea ahaztu. Hain ziren handiak gizon hark zituen emozioak, guztiak erlojuan geratu zirela. Eta erloju bi sentimenduz beterik geratu zen: maitasuna eta gorrotoa. Gizonak jainkoekin hitz egitea erabaki zuen gertatutakoaren inguruan, ea bere bizitzari amaiera ematen uzten zioten, horrela bere maitearekin elkartzeko. Baina jainkoek beste zigor bat ezarri zioten berei iruzur egiteagatik: bere bizitzari amaiera ematen utziko zioten, baina bere arimak ezin izango zuen lasai deskantsatu. Horren ordezkatu, erlojuaren barnean gorde zuten jainkoek gizonaren arima eta betirako gorroto eta maitasun horrekin bizi beharko zuen.

—Eta horrek zer zerikusi dauka erloju honekin?

—Makina hori gizonaren anaiaren eskuetan geratu zen. Eta jainkoek makina hura zaintzera derrigortu zuten, bestela bere anaiaren zigor bera edukiko baitzuen. Eta makina hura zuk zeuk gaur egun eskuetan daukazun erloju hori da. Bere

barnean, gizona etengabeko borroka batean murgildurik dago bere bi sentimenduekin. Bestalde, badira erloju horren jabe bihurtu nahi duten izaki maltzurak. 'Itzal' deitu ohi diegu. Eta, seguruenik, berak izan ziren zure gurasoak hil zituztenak. Baina Gorentasunak erlojua berreskuratzea lortu zuen.

—Froga!

—Zer froga?

—Froga bat nahi dut, hori guztia adarjotze bat besterik ez dela ziurtatzeko!

—Ez naiz harritzen. Bizi zaren mundua azaldu dizudanarekiko oso bestelakoa da. Baina badakit nola erakutsi ahal dizudan ez dela txantxa bat. Atera ezazu zeure ezkerreko poltsikoan gorde berri duzun erlojua, mesedez.

Hitzik egin gabe, neskak gizonak esandakoa egin zuen.

—Eta zer nahi duzu orain egitea?

—Erlojuak bi botoi dauzka. Bat erlojuaren orratzak aurreratu nahiz atzeratzeko da. Baina ba al dakizu bestea zertarako den?

Neskatoak ezezkoa egin zion buruarekin; eta, beraz, aurrera jarraitu zuen bere azalpenekin:

—Seguruenik saiatu zara botoiari bira ematen nahiz barruraka zanpatzen, baina erloju hori ez dabil horrela. Botoiari kalkatzean, zerbait bitxia nabaritu al zenuen?

—Bai. Baina ez dakit zer zen zehazki.

—Nik bai, ordea. Goazen, kanpoan itxaroten ari zaizkigu.

Hori esatearekin batera, kanpora atera ziren biak; baina neskatoak ez zuen inor ikusten. Gizona, horretaz jabetzean, hizketan jarraitu zuen:

—Ez badituzu ikusten, zergatik ez diezu laguntza eskatzen?

Hala egin zuen neskatoak. Ezerezari begira, laguntza eskatu zuen. Orduan, zerbait bitxia hasi zen gertatzen: argi bat hasi zen ateratzen bere ingurutik. Bazirudien hainbat pertsona zeudela bere inguruan esku emanda, sutan. Ez, sua ez. Linterna baten argia baino distiratsuagoa zen. Baina zer izan zitekeen? Argi guztien artean bat ezberdina iruditu zitzaion. Kolore desberdina zeukan. Arreta guztia argi hartan jarrita, gizon baten irudia ikusten hasi zen. Baina ez edonor. Aitona zen, eta bere-gana hurbiltzen ari zen. Neska negarrez ari zen, ahoa dardarka, eta ezin zuen hitz bakar bat ere esan. Aitonaren irudia hurbiltzen zihoan heinean lasaitasuna nabaritu zuen haren aurpegian. Zerbait esaten saiatzen ari zen. Neskatoarengana hurbildu zen eta, erlojuaren botoia seinalatzen zuen bitartean, zerbait esan zion belarrira. Hitz horiek esatearekin batera, bere begien aurrean desagertu zen. Minutu batzuen buruan neskatoak ia dena ulertu zuen: inguruan zeuden izakiak zein ziren, zer egin

behar zuen... Ulertzen ez zuen gauza bakarra zen ea nor ote zen sotanaz jantzitako gizon hura. Elizatik gizon argitsu haiekin ateratzen ari zen bitartean, atzera azken aldiz begiratu zuen, gizonari eskerrak emateko; baina fraide itxurako gizona desagertzen ari zen. Bazirudien hauts bihurtzen ari zela eta hauts haiek erlojuaren barrenean sartzen ari zirela. Neskatoak berehala jakin zuen jainkoek zigortu zuten gizon haren arima zela lagundu berri zion pertsona hura. Elizatik irtetean, gizon dirdiratsu haietako bat neskarengana hurbildu zen eta kostata hitz egin zion:

—Hemendik aurrera guk lagunduko dizugu erloju hori zaintzen, baina gauza bat galdetu nahiko nizuke.

Neskatoak baiezkoa eman zion buruarekin eta gizonak hizketan jarraitu zuen:

—Jakin al liteke zer esan dizun lehenago gizon horrek?

—Gizon hori nire aitona zen. Eta bere azken hitzak niretzako izan dira. Seguruenik ez duzue ulertuko, baina jakin nahi izanez gero, hau izan da: *Bizitzaren zikloa, zuk hasi eta nik amaitu.*

Olatz Genova

